

# Arrasate

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2003ko maiatzaren 16a / 629. zenbakia

## GAZTETXE BERRIA IA GERTU

AGAKOK Uarkapen egin duten gaztetxe berria ekainean zabaldu gura du. Horretarako, gazteak lokala apaintzen dabilta buru-belarri

ORAIN ETA HEMEN: EGITAMU OROKORRAREN ZUZENKETA/8 • KIROLA: PREFERENTE MAILA ESKURA/11



Ignacio Lakunza.  
Arrasateko Alkatetzarako Hautagala.

# Orain Arrasate.



Bozkatu eraginkor.



oso urruti ikusten  
duzula itsas bidaia  
bat egiteko ametsa?



orain oso gertu ikusiko duzu

MultiOpticas-en

## Lente Progresiboak

# 120€urotik aurrera

...eta zozketatzen ditugun 400  
itsas bidaietatik bi eraman itzazu



Zure lente progresiboak MultiOpticas-en  
erostearren, bi lagunendako Mediterraneoan  
zeharreko itsas bidaia irabaz dezakezu.

Promozioa 03/05/01-03/08/15. Ez metagarria beste eskaintza batzuetara.  
Notario aurrean eginiko oinarriak.

R.P.S. Nº 104/99 I.L.G.

# MULTIOPTICAS

J. Carlos Guerra, 1 • Tel. 943 79 29 25 • ARRASATE



## KALEINKESTA/ Ze eskatuko dutzezu alkate barrixari?



**SUSANA TARACIDO**  
Langillie

Adibidez, herriko jardineak eta hobeto zaindu daixela. Horrekin batera, gaztiendako ekintza gehixago egin daixela, eta etxebizitzaren arazue konponketan ahalegindu daille.




**KOLDO GINART**  
Langabie

Lehenengo eta behin, etxebizitzaren arazue konponketan ahalegindu daille. Aparkalekuen arazue behor dau, eta, posible bada, ahalegindu daille beste alderdixekin lan egitten.



**IBAI MADARIAGA**  
Langillie

Ahalegindu daille etxebizitzaren eta aparkalekuen arazue konponketan, baiñe batez be Udal barruko egoera politikue konpondu daixela eskatuko neuskio alkate barrixari.



**IÑAKI RUBIO**  
Ikaslie

Ahalegindu daille aparkalekuen arazue konponketan. Horrekin batera, ekitaldi kultural gehixago antolatu daixela eskatuko neuskio, baiñe ez bakarrik urteko sasoi baten.



**MARIEL ERIZ**  
Langillie

Lehenik eta behin, etxebizitzaren egoerie konpondu daixela. Ez dakit etxe gehixago egittie dan soluziñue; kontue da dauzen etxiek oso karuek diela, bai berriek bai zaharrak be.



**MARIBEL LORENZO**  
Langillie

Arazo haundixena etxebizitzena da, eta hori konpondu daixela eskatuko neuskio datorren alkate barrixari. Nik neuk babes ofizialeko etxe bat eskatu dot, baiñe batek daki...

## TXALOAK ETATXISTUAK



**TXALOAK BERDEGUNEKO PASABIDEA** Ospitale zaharraren eta Uarkapeko etxeen artean berdegune polita jarri zuten aspaldi. Baina bazuen zerbait faltan: zenbait herritarrek berdegunearen beste aldera gurutzatu gura zutenean, buelta handia ez ematearren berdegunea zapaldu egiten zuten. Hori saihesteko eta berdegunea errespetatzen laguntzeko, Arrasateko Udalak pasabidetxoa egin du.

## ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN / 8

**Musakolako jaiak hasi dira**

Aste bukaeran San Isidro jaiak ospatuko dituzte Musakolan. Egitarau mardula prestatu dute.

KULTURA / 18

**Ikastolaren Eguna**

Bihar, zapatua, Ikastolaren Eguna ospatuko dute. Goizean hainbat ekintza egongo dira herrian.

ZAHARRAK / 21

**Etxeko telelaguntza**

Kutxak eta Maprek nagusienendako etxeko telelaguntza zerbitzua jarri dute abian.

## ASTEKO DATUA

# 106

**TALDEK EMAN ZUTEN IZENA SASKIBALOI TXAPELKETAN**

106 taldek eman zuten izena joan den zapatuan Laubideko plazan jokatu zen 3x3 Saskibaloitxapelketan. Inoiz baino gazte gehixago jokatu zuten, eta antolatzaileek 12 kantxa jarri zituzten.

## BESTE EKESANA

“Esne saltzaileak etxez etxe ibiltzen ziren eta gero esnea kalean saltzen zuten. Auzoetatik etortzen ziren: Uribarrikoak Ferreriasera; Bedoñakoak Iturriotzera; Musakolakoak Maalara... bakoitzak bere bezeroak zituen. Esnea astoaren laguntzaz ekartzen zuten eta oraindik Iturriotz kalean astoa lotzeko burdinen bat dago (...), Astoek propina asko uzten zituzten eta garbitzaileek lan dezente edukitzen zuten. Beste batzuk, ostera, loretara botatzeko aprobetxatzen zuten (...). Saltzaile horietako batzuk etxez etxe herriko berriak zabaltzen zituzten (...). Gehienak kalera egunero etortzen ziren, domeka barne, 08:00etarako... goizean goiz esnea batu eta kalera, saltzera jaisten ziren”

**ESPE LIZARRALDE**  
ARRASATE IRRATIA / 03-05-14

## HERRITARREN BERBAK / Antton Mendizabal



*‘Apartheid’-a Euskal Herrian*

Bai, bagenekien frankismotik hereditutako demokrazia iruzurra zela. Bagenekien ere “ez nazionalista horiek” bultzatutako proiektuak Espainiako nazionalismo inperialistarenak zirela. Bagenekien hainbeste aldiz euskaldunei leporatutako arrazakeria, benetan eta bereziki Espainiaren zaleena zela. Baina, urteetan botereak eraikitako demokrazia, bakea eta giza eskubideen aldeko mozorro ideologikoa, hain epe laburrean hauek pikutara bidaltzea, batzuk harritu gaitu.

Hain denbora luzean errepikatutako “bizitzarako eskubide” sakratua, PPK Irakeko herritarren aurka egindako sarraskia eta hilketak lagunduz axolagabetu du. Gure eskubide politikoen ukapenean ardura handia daukaten PPK eta PSOEk hainbestetan aldarrikatutako eskubide indibidualak, ezerezean gelditu dira, Hego Euskal

Herrian sektore oro bati (ezkerraren handiena) eskubide sozial, zibil eta politikoak ezabatzerakoan.

Bagenekien botoak marketing eta bereziki komunikabideen erabilpen ez demokratikoarekin gauzatzen zirela.

Ondorioz, Hego Euskal

Herrian, euskaldunen zapalkuntzan eta Espainiako estatuak iruzurka erabilitako komunikabideetan oinarritutako hauteskundeak boto espainola lehenesten duela, aldi berean boto abertzalea diskriminatuz. Baina, Euskal

Herria eraikitzen duen ezker abertzalearen botoak baliogabe uzteak, aurrerapauso kualitatibo eta oso larria adierazten du: Hegoafrikan beltzei aplikatutako apartheid bera gure artean sartzea esan nahi du.

Hegoafrikan beltzekin egin zuten bezala, hemen ere, hemengo, bertako, sektore bati horixe aplikatzen digute. Han beltza izatea zen arazoa eta hemen euskalduna izatea eta libre izan gura izatea.

**“Hegoafrikan beltza izatea egin zuten arazo. Euskal Herrian, berriz, euskalduna eta libre izan gura izatea”**

**Arrasate** PRESS

Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE  
Tel.: 943 71 25 11  
Faxa: 943 71 23 89  
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA

Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA

Ubane Madera  
Xabier Urzelai

MAKETAZIOA

Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA

Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA

Arantzazu Lagunilla  
Izaskun Bolinaga  
Natali Martinez  
Imanol Elortza

ADMINISTRAZIOA

Agurtzane Gainzarain  
Ane Bereizbar  
Iratxe Bengoa

BANAKETA

Julen Aranguren

LEGE-GORDAILUA

SS-1124/88

ISSN

0214-4654

TIRADA

7.350 ale

**Goiena**  
Komunikazio Zerbitzuak

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako  
Kultura saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Arrasateko  
Udala



Aramaioko  
Udala

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

- EGUBAKOITZA, 16**  
Irizar, Eguin 11 . . . . . 943 79 12 39
- ZAPATUA, 17**  
Amezua, Santa Marina 32. . . . . 943 79 09 74
- DOMEKA, 18**  
Zabala, Zarugalde 42. . . . . 943 77 16 30
- ASTELEHENA, 19**  
Ruiz, Maala 31 . . . . . 943 79 14 09
- MARTITZENA, 20**  
Español, Araba etorb. 17 . . . . . 943 79 18 65
- EGUAZTENA, 21**  
Azkoaga, Ferrerías 1 . . . . . 943 79 15 15
- EGUENA, 22**  
Azkoaga, Iturriotz 33. . . . . 943 79 79 99

**TELEFONO JAKINGARRIAK**

- ERIETXEAK**  
Arrasateko Eskualde Ospitalea. . . . . 943 03 53 00  
Igualatoríoa. . . . . 943 71 26 91  
Santa Agedako Ospitalea:  
Gizonak . . . . . 943 79 39 00  
Emakumeak . . . . . 943 79 44 11  
Buru osasunerako etxea . . . . . 943 79 90 11
- LARRIALDIAK**  
SOS Deiak . . . . . 112  
Gurutze Gorria . . . . . 943 76 55 76  
DYA . . . . . 943 78 71 57
- ANBULATORIOAK**  
Guardiako medikua . . . . . 943 46 11 11  
Astelenehenetik  
egubakoitzera . . . . . 17:00etatik 08:30era  
Zapatuetan . . . . . 14:00etatik 08:30era  
Asteburuetan eta jaiegunetan . . . . . egun osoa
- Arrasate**  
Astelenehenetik  
egubakoitzera . . . . . 08:00etatik 17:00etara  
Zapatuetan . . . . . 09:00etatik 14:00etara.  
• Txanda hartzeko:  
medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50  
• Espezialitateak . . . . . 943 03 53 11  
• Ikuskatzailea . . . . . 943 03 52 52  
• Kanpoko kontsultak . . . . . 943 03 53 11
- ANBULANTZIAK**  
Gipuzkoako Anbulantziak . . . . . 943 45 87 44
- ERTZAIINTZA**  
Arrasate . . . . . 943 79 71 99

- SUHILTZAILIAK**  
Udal taldea . . . . . 943 79 09 00  
Udal taldeko suhiltzaileburua . . . . . 943 79 20 72  
Zubillagako Eskualde Parkea . . . . . 088

- MATXURAK**  
Urak (Udal Zerbitzua) . . . . . 943 79 09 00  
Argindarra (Iberduero) . . . . . 943 12 01 62  
Gasa . . . . . 900 40 05 23  
943 79 78 44

- GARRIAK**  
Taxiak . . . . . 943 79 12 22  
PESA . . . . . 902 10 12 10

- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**  
Iturbide egoitza . . . . . 943 79 72 11  
Abaroa erretiratuen egoitza . . . . . 943 79 81 57

- MONTEIRON LIBURUTEGIA**  
Monterron . . . . . 943 77 01 05

**MEZAK**

- |   |  |
|---|--|
| <b>San Joan parrokia</b><br>Zapatua<br>19:00 (elebiduna)<br>Domeka<br>09:00 (gaztelaniaz)<br>11:00 (gaztelaniaz)<br>11:00 meza nagusia (euskaraz)<br>12:30 (elebiduna)                          | <b>San Andres eliza</b><br>Zapatua<br>19:00 (elebiduna)<br>Domeka<br>10:00 (elebiduna)<br>11:00 (euskaraz)<br>12:00 (gaztelaniaz)<br>13:00 (gaztelaniaz) |
| <b>San Frantzisko eliza</b><br>Zapatua<br>19:00 (elebiduna)<br>Domeka<br>09:00 (euskaraz)<br>10:00 (gaztelaniaz)<br>11:00 meza nagusia (euskaraz)<br>12:30 (gaztelaniaz)<br>19:00 (gaztelaniaz) | <b>Santa Teresa eliza</b><br>Zapatua<br>19:00 (elebiduna)<br>Domeka<br>11:00 San Isidron (euskaraz)<br>12:00 (gaztelaniaz)                               |
| <b>Uribarri parrokia</b><br>Zapatua<br>19:00 (elebiduna)<br>Domeka<br>11:30 (euskaraz)<br>12:30 (gaztelaniaz)   | <b>Santa Marinako eliza</b><br>Jaiegun bezpera eta zapatua<br>19:00 (gaztelaniaz)<br>Domeka<br>12:00 (gaztelaniaz)                                       |

**OHARRAK**

**IKASTOLAREN EGUNA**  
Bihar, zapatua, Ikastolaren Eguna ospatuko dute. 10:00etatik 13:00ak arte hainbat ekintza egongo dira Ferixalekuan, Seber Altuben, Laubiden eta Herriko Plazan.

**EXTREMADURAREN ASTEA**  
Aste bukaeran Extremaduraren Astea ospatuko dute Corazon de Encina elkarte-an.

**MUSAKOLAKO JAIK**  
Aste bukaeran San Isidro jaiak ospatuko dituzte Musakolan.

**'EUSKAL HERRIA AURRERA'**  
*Euskal Herria aurrera!* lelopean kontzertua antolatuko dute gaur, egubakoitza, Monterronen. Tijuana In Blue, Sorkun eta Anger taldeek joko dute. 22:00etan izango da.

**'PIRU'-REN OMENALDIA**  
Gaur, egubakoitza, *Piru*-ren omenezko kontzertua egingo dute Arkada Sozial, Jodete!, Los Cretinos, The Jukebox, Des-Kontrol eta Kañeria 13 taldeek Musakolan, 23:00etan.

**EGUENETAKO ZINEKLUBA**  
Maiatzaren 22an, eguenean, *El efecto Iguazú* filma emango dute. Amaia Udal Antzokian, 21:30ean.

**AEDren AGENDA**

**'EGUNKARIA'-REN ALDE**  
*Euskaldunon Egunkaria*-ren aldeko herri batzordeak lanean jarraitzen du. Batzorde horretan parte hartzeko interesa duenak jo dezala AEDra edo dei dezala 943 77 12 28 telefonora.

**ARRASATE LEHIAKETAK**  
AEDk maiatzaren 29an emango du aditzera Arrasate Lehiaketetako epaia.

**URBANOEN ORDUTEGIA**

- Gorostizatik Eroskira**  
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.  
IBILBIDEA: Gorostiza, Eguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara**  
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.  
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Eguin A eta Gorostiza.

**ORAINDELA 10URTEARRASATEN**

**Kartel eta pintada araudiari alegazioak**

Hauteskunde garaian izan ezik pankarta, kartel eta pintadak egitea eta jartzea debekatu zuten, EAJren eta PSEren botoekin. Alegazio epea zabaltzean, herriko talde mordo batek araudia bertan behera uztea eskatu zuen. Hainbat alderdi politikok ere aldaketak eskatu zituzten.



**BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru**

**"Maluskau"**



Muskildu, lardaskatu.  
— *Umaiak oillaskua jan ez, baiña dana maluskauta laga, bai.*  
— *Txakurrak sagar guztiak maluskau dittu.*  
Perretxikuak, adibidez, plastikoan nola-hala ekartzen badira *maluskauta* geratzen dira.

**ARRASATE IRRATIA FM 107.7**



**Musakolako jaiak aste bukaeran**

Oraingo aste bukaeran Musakola auzoan San Isidro jaiak ospatzen direla-eta, astean barrena Jesus Mari Apraiz auzo-alkatearekin egindako elkarriketa berreskuratuko dugu aste bukaerako gainbegiratuan. Bestalde, aspaldiko kale saltzaileen gainean berba egin digute Eusebio Iñarrak eta Espe Lizarralde *Kontu Kontari* atalean, eta solasaldi hori berriro entzuteko aukera izango dugu bihar eta etzi, zapatuan eta domekan, 11:00etan hasita.



**Tibeten eta Nepalen bizikletan**

Agurtzane Ugalde arrasatearrak oso gustuko du mendia, baita bizikletan ibiltzea ere. Joan den udazkenean Tibet eta Nepal aldean ibili zen, bi hilabetez, Ondarroako lagun batekin herrialde haiek bizikleta gainean ezagutzen. Bidaia hura ez da Agurtzane egin duen bakarra, betiere bizikleta garraibide duela. Abentura horiek kontatzeko Arrasate Irratira gonbidatu dugu Agurtzane datorren martitzenean, hilaren 20an, 10:00etan.

**HAUGIROA!**

|                                   |               |
|-----------------------------------|---------------|
| <b>MINIMOA</b><br>Domeka, 11      | <b>6 °C</b>   |
| <b>MAXIMOA</b><br>Astelenehen, 12 | <b>24 °C</b>  |
| <b>ASTEKO EURIA (l/m²)</b>        | <b>17,8 L</b> |

|                 | Max.  | Min.  | Euria     |
|-----------------|-------|-------|-----------|
| Eguaztrena, 7   | 13 °C | 9 °C  | 16,6 l/m² |
| Eguena, 8       | 16 °C | 10 °C | — l/m²    |
| Egubakoitza, 9  | 17 °C | 7 °C  | — l/m²    |
| Zapatua, 10     | 20 °C | 8 °C  | — l/m²    |
| Domeka, 11      | 20 °C | 6 °C  | — l/m²    |
| Astelenehen, 12 | 24 °C | 8 °C  | 1,2 l/m²  |
| Martitzena, 13  | 16 °C | 11 °C | — l/m²    |

San Juan auzoan jasotako datuak



**ASTEKO PROGRAMAZIOA**

- ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA**  
09:00 Albistegia  
09:30 Igo autobusera  
10:00 Euskadi Irratiko albistegia.  
10:06 Igo Autobusera.  
11:00 Euskadi Irratiko albistegia.  
11:20 Arrasate Irratiko albistegia.  
11:30 Eguerdiko hamabiak arte: efermerideak, zozketak, zorion agurrak...  
12:00 Euskadi Irratiko albistegia  
12:06 Musika berriaren tartea.  
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.  
14:00 Goizeko saioaren errepikapena.  
19:00-21:00-23:00 Albistegi laburra
- ASTELEHENA**  
19:30 Berriketan: Almeneko ikasleentarte.  
20:00 MIR: Musika tartea.
- MARTITZENA**  
19:30 Berriketan  
20:00 Txortxorrien: Mikel Aranburu eta Jokin Etxebarria.
- EGUBAKOITZA**  
19:00 Planing Prest: Deiane Arieta
- ZAPATUA**  
11:00 Asteko elkarrizketak: Jesus Mari Apraiz, A. Diaz de Monasterioren
- DOMEKA**  
11:00 Asteko elkarrizketak

## ASTEABIHITZETAN

### Olarte kalea zolatzten

Herriaren erdialdean zorua aldatzen hasi dira. Hain zuzen ere, erdiguneko zenbait kale oso labainkorrak dira, batez ere bustita daudenean; eta batek baino gehiagok hartu izan du ipurdikoren bat edo beste.

Horrela, bada, orain dagoen lurra jaso eta berria ipintzeko lanak egiten dabilta. Lehenengo, Olarten hasiko dira eta gero, Zurgin Kantoiaren edo Iturriotz kaleen txanda izango da. Guztira 75.000 euro inbertituko dituzte lanotan.

### Bertso doinuak Amaia antzokian

Aurreko eguen goizean (hilak 8) bertso doinuak nagusitu ziren Amaia Udal Antzokian; gaztetxoan ahotan ipinitako bertso doinuak, hain zuzen. Izan ere, Arizmendi Ikastolako hainbat ikastetxetako laugarren eta bosgarren mailetako umeez bertso proiektuko amaiera ekitaldia egin zuten. Hain zuzen, Bertsozale Elkarteak bertsolaritza eta bertsozaletasuna bultzatzeko ibarreko zenbait herritan abiarazi duen proiektua da hori. Eta aurtengo emaitza onak ikusi eta gero, aurrerantzean herri gehiagotara zabaldu gura dute.

### MUren diploma banaketa

Mondragon Unibertsitateko Enpresa Zientzien Fakultatean diploma banaketa egin zuten joan den zapatuan. Hain justu ere, Enpresa Zuzendaritza eta Administrazio IV. promozio eta Kudeaketa Informatikan Ingeniaritza Teknikoa egin duten III. promozio ikasleei eman zizkieten tituluak.

Ekitaldia Oñatiko Santa Ana aretoan izan zen; guztira 106 ikaslek jaso zituzten diplomak. Jose Luis Abauz Enpresa Zientzien Fakultateko dekanorekin agurrarekin hasi zen saioa. Horrez gainera, MCCko Kontseilu Errektoreko presidente Jesus Catania eta MUko errektore Inaxio Oliveri ere izan egon ekitaldian, besteak beste.



### Legez kanporatzearen kontrako lanuztea

Joan den egubakoitzean zenbait arrasatearrek bat egin zuten legez kanporatzearen kontra protestatzeko deitutako lanuztearekin. Fagorren, adibidez, 250 bat lagunek egin zuten bat, Arrasaten, Udaleko zenbait ere egin zuten bat eta zenbait denda eta tabernak ateak itxi zituzten.



### USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran

## Herensugea eta astoa

**G**aur, egubakoitza, Musakolako jaiak hasi dira. Agian, Musakolarrak eta han bizi direnak, euren independentziarako joera ezagututa, gurago izango dute orrialde haue-tan, Arrasatekoetan, alegia, ez agertzea. Gauzak aldatzen ez diren bitartean, behintzat, arrasatear askorentzat San Isidroak Arrasateko auzoeta-ko jai onenak dira.

Gaurtik, egubakoitza, domekara arte jaia izango da nagusi Zigorrolan. Egitarau mardula antolatuta dute. Hala ere, aipatu beharra dago aurtan jai horren osagai garrantzitsu batek kale egingo duela. Musakolari eta herri guztiari kolore eta hots berezia ematen dion motoza-leen kontzentrazioerik ez dute antolatu. Beste talde askotan bezalaxe, motozaileen artean

musu-truk gogor lan egiteko jendea falta da. Pena da, baina tira!

Oso bitxia da aurtan Arrasatek eta Musakolak sinatu ei duten ituna. Hala dirudi, behintzat, aurtengo San Isidroko kartela ikusita. Astoa eta herensugea batera ageri dira. Eta aurtan kalera-tu duten eranskailuan ere Arrasateko eta Musakolako alkateak batera daude. Arrazoa dute, ez da berandu-egi elkarlana bultzatzeko eta indarrak batzeko.

## ASTEKOIRUDIA



XABIER URZELAI

### EGUAZTENEAN AUKEA SARIEN BANAKETA ETA PILOTAREN GAINKO MAHAI-INGURUA

Eguaztenean bi kirol ekitaldi izan ziren Monterron jauregian: batetik, 2002ko AUKEA sariak banatu zituzten. Kirolari onenaren saria Iban Galán karateka mondragoetarrarendako izan zen. Taldeko saria, berriz, Debagoiena Zikloturista Taldeari eman zioten. Aipamen berezia Arrasatek izan duen pilo-

tari onenetako batendako izan zen, Joxe Arriararendako, hain zuzen. Sari banaketarekin batera, AUKEA kirol elkarteak pilotaren gaineko mahai-ingurua antolatu zuen. Enpresari, pilotari, pilotari ohi eta kazetarien arteko mahai-ingurua izan zen. Ekitaldi interesgarria benetan. /XABIER URZELAI

ad **Ibabe**

**IBABE GARAJEA**

**MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA**

Gesalibar auzoa, z/g.

Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE



**Gambrinus**  
garagardotegia

- Menua:  
bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziaduna, 40-42  
Tel.: 943 79 53 32



KONTRATAK

**IRYROK S.L.**  
ERAIKUNTZAK


Meatzerreka, 5 bis - Apdo. 246

Tel.: 943 77 09 92 Faxe: 943 - 79 78 14

ARRASATE

## HAUTESKUNDEAK M25 / ARRASATEKO ETORKIZUNA AZTERGAI

## Udalbatzar berri-berriak • Herri Anitza legez kanpo • Gehienek etz...



HERRI ANITZA

**Xabier Zubizarreta**

ARRASATE / 59 URTE / ADMINISTRATZAILEA

Xabier Zubizarreta Aretxabaletan jaio zen 1944an. Hala ere, aspaldi etorri zen Arrasatera lanera. 1983an Arrasateko Udalean zinegotzi hasi zen eta 1987an alkate aukeratu zuten. Orduetik gaur egunera arte herriko alkate izan da, zentsura-mozioak iraun zuen bi urteetan izan ezik. Bi urte haietan zinegotzi izan zen.

**Espainiako Auzitegiak galarazi egin dizue hauteskundeetara aurkeztea. Zelan baloratzen duzue hori?**

Harrotasunez, Euskal Herri erdia baino gehiago debekatuta dago eta. Zenbait komunikabide itxita, euskararen alde lan egitea debekatuta, zenbait elkarte legez kanpo, hainbat herritar bahituta... Giro horretan ohore handiena Euskal Herriaren defentsan norabide horretan ibiltzea da. Baina debekuekin demostratzen da Espainiako legez kotasunean ez garela sartzen. Izan ere, horrela da Euskal Herria beste errealtate bat delako, errealtate nazional, sozial eta kulturala.

**Herri Anitzak hauteskundeetan parte hartzeko borondatea azaldu du...**

Gu debekatzeko arrazoi funtsezkoa da Euskal Herriaren independentziaren aldeko mugimenduak geroago eta indar handiagoa daukela, eta hauteskundeetan aurrerakada nabaria egin genezakeela. Espainiako Estatua beldur da. Alferrik dabilta, Euskal

Herria geroago eta kontzienteagoa delako burujabetzaz, nazio bat garela, gure hizkuntza euskara dela... Borondatea euskal herritargoan dago, eskubidea dugulako. Marko juridiko, politikoa eta legala aldatu behar da.


**Berriro alkate izango bazina, zeri emango zenioke lehentasuna?**

Alkateek eta zinegotziek herritarren borondatea asmatzen jakin behar dute. Jendearen esku-hartzea bilatzen duen alkatearengan sinesten dut. Proiektuak asko daude, baina ez nuke bat bera nabarmenduko.

**Eta maiatzaren 25etik aurrera zer? Zer egingo du Herri Anitzak?**

Euren legalitatean ez dugu lekurik, herritarrei dagokien zilegitasunean oinarrituta lan egingo dugu. Beti egin dugu lan herrigintzan, eta erakundeetako lana herrigintzaren atala da. Erakundeetatik bota gura gaituzte, baina ez dute lortuko, gure lanarekin erakundeetan ere eragingo dugulako, euskaldunon burujabetzan oinarritutako erakundeak eduki arte.

*“Erakundeetatik bota arren, gure lanarekin, herrigintzan, erakundeetan eragingo dugu”*



EA/EAJ

**Ignacio Lakuntza**

ARRASATE / 52 URTE / MONE-KO ZUZENDARIA

Ignacio Lakuntza Tolosan jaio zen 1951n. Ingeniaritza Mekanikoa ikasi zuen Donostian. 1974an Mondragon Eskola Politeknikoan mekanikako eskolak ematen hasi zen, eta 1988tik 1999ra arte Mondragon Eskola Politeknikoko zuzendari orokor izan zen. Ez da inoiz politikan ibili.

**Zein premia ikusten duzu Arrasaten?**

Arrasate Euskal Herriko lehenengo enpresa korporazioaren, Unibertsitate gazte eta moderno baten, ospe handiko finantza instituzio baten eta merkatu konkretu batzuetan mundu mailan liderrak diren enpresen egoitza da. Era berean, Arrasatek euskal kulturaren proiektu berritzaile ugari jarri ditu abian. Hala ere, krispazio politikoa handia dago eta banaketa politikoa sakonek udal gestio osoa zaildu eta baldintzatu egiten dute.

Egoera hori gainditzeko, mondragoetarren artean ilusio berriak sortu behar ditugu eta euren premiak betetzeko etorkizun planifikatua, zabala eta estrategikoa eraiki behar dugu.

**Premia horiei aurre egiteko zein ekimen proposatzen duzu?**

Hurrengo agintaldian denon artean “Proiektu Berri” bat abian jarriko dugu: *Sinistu gure hirian*. Gure zuzendaritzapean eta hausnarketa komun baten ondorioz, funtsezko balio hauetan oina-

rrituz egingo da proiektu berria: justizia, solidaritatea, berdintasuna, elebitasuna eta bake elkarbizitza.

“Proiektu Berri” hori ilusio berriez osatua dago. Helburu nagusietako bat urteroko biztanle kopuruaren jaitziera gelditzea da. Helburu orokor horrek ekimen berriak sortuko ditu, bai azpiegitura aldeetik, bai etxebizitza aldeetik, eta, duda barik, enpresa berrien sorrera bultzatuko du.

**Auzitegi Konstituzionalak ezker abertzaleko hainbat plataforma legez kanpo utzi ditu, Arrasateko Herri Anitza tartean. Zein balorazio egiten duzu?**

Lehenengo balorazio bezala, herri honendako guztiz kaltegarria dela uste dut. Kontuan izan behar da plataforma horien alde hiritarren sinadurak batu direla eta astakeria legal baten bidez amaitu dela prozesu osoa. Hiritar kopuru adierazgarri bat aukera eta ahots barik gelditu da, eta, hortaz, mekanismoren bat asmatu behar dugu ahots hori entzun ahal izateko.

*“Arrasateko premiak betetzeko etorkizun planifikatua, zabala eta estrategikoa eraiki behar dugu”*



PSE-EE

**Blanca Roncal**

AURITZ / 53 URTE / MEDIKUA

Blanca Roncal Azantza Auritzen (Nafarroa) jaio zen 1950ean. Medikuntza eta Filologia Erromanikoa ikasi ditu. Mediku lanetan ibili da Iruñean eta Gasteizen, eta Arrasateko eskualde ospitaleko zuzendari izan zen. Bi urte daramatza parlamentari lanetan, eta hiru agintaldi egin ditu Arrasateko Udalean.

**Zein premia ikusten duzu Arrasaten?**

Lehenik eta behin, Arrasaten demokrazia falta ikusten dut, eta gabezia hori agintaldian egon den gobernu taldeak bultzatu du. Erabaki batzuk hartzerakoan azpizokoa ibili dira, eta, besteak beste, Egitamu Orokorrean hartu diren erabaki batzuk dira horren erakusle. Horrekin batera, gobernu taldeak hartutako erabakietan herritarren parte-hartzea ahalik eta txikiena izan dadin egin dute lan, eta adibide asko daude hori egiaztatzen dutenak.

**Premia horiei aurre egiteko zein ekimen proposatzen duzu?**

Gure lehenengo egin beharra Arrasaten berriro ere demokrazia ezartzea izango da. Horrez gain, beste gauza asko ditugu egiteko: auzoak birgaitzeko programa berezia egin; Udalak hartzen dituen erabaki guztiak herritarrei zabaltzeko aldizkari bat sortu; etxebizitza duina eskuratzeko arazoa konpondu; enpresak sortzeko eta ezartzeko eki-

menak bultzatu; eskualdean industrietarako zorua sustatu; oso gutxi erabiltzen diren gune batzuk (Amaia antzokia, Monterron jauregia...) berreskuratu; auzoetako galdu duten protagonismoa berriro ere eman; herrian aparkaleku gehiago egin; eskaintza kultural askoz zabalagoa eskaini... Horiek dira, besteak beste, Arrasateko premiak asetzeko egin gura ditugun lanak.

**Auzitegi Konstituzionalak ezker abertzaleko hainbat plataforma legez kanpo utzi ditu, Arrasateko Herri Anitza tartean. Zein balorazio egiten duzu?**

Guk legalitatea errespetatzen dugu, eta ez dugu Auzitegi Konstituzionalak hartu duen erabakia kritikatu. PSE-EEK ondo ikusten du biolentzia erabili edo biolentzia gaitzesten ez duten alderdi politikoen erakundeetan lekurik ez izatea. Horrekin batera, lehen esan bezala, demokraziarik eza dagoela uste dugu, herri honetan batzuek bizkaitzainekin bizi behar dutelako.

*“Arrasaten demokrazia falta ikusten dut. Gobernu taldeak ez ditu herritarrak aintzat hartu”*

# Etxebizitzaren arazoa berbegai - Aralar aurkeztuko da lehenengo aldiz



PP

## Maria Itziar Lamarain

ARRASATE / 58 URTE / ENPRESABURUA

Maria Itziar Lamarain Arrasaten jaio zen, 1945ean. Ezkonduta dago eta bi seme-alaba ditu. Enpresa baten lan egiten du eta etxeko lanez ere arduratzen da. Lehenengo aldia da Maria Itziar Lamarain Arrasateko udal txerako alkategai eta zinegotzi izateko hautagai aurkeztzen dena.

### Zein premia nagusi ikusten duzu Arrasaten?

Etxebizitzaren arazoa eta Arrasate inguruetan duten komunikabideak. Eta babes ofizialeko etxebizitzaren premia handia dago.

### Premia horiei aurre egiteko zein ekimen proposatzen duzu?

Esate baterako, etxebizitzaren arazoa konpontzeko Egitamu Orokor zaharra berritu egingo genuke, eta lur merkeagoa eskaini gura dugu. Babes ofizialeko etxebizitzak eta alokairu merkea duten etxebizitzak bultzatzeko asmoa dugu. Etxebizitza politikari aurrekontu handiagoa emango diogu, batez ere gazteak, familia ugariak eta hirugarren adineko senideak edo dependentzia motaren bat dituzten familiei laguntzeko. Alokairuak errazteko eta bultzatzeko asmoa ere badugu.

Era berean, Gasteiz-Maltzaga autobideari bultzada handiagoa emango diogu, ibarreko aukeraz gozatzeko.


### Zein beste helburu ditu PPK Arrasaten?

Besteak beste, familien alde egin gura dugu eta hirugarren adinekoen bizi kalitatea hobetu gura dugu. Solidaritatea, demokrazia eta hiritarren parte-hartzea areagotu gura ditugu. Tratu txarren aurka lan egingo dugu. Agindutakoa bete egingo dugu. Arrasatearren interesak defendituko ditut. Ni neu arrasatearra naiz eta nire herria defendituko dut.

### Auzitegi Konstituzionalak ezker abertzaleko hainbat plataforma legez kanpo utzi ditu, Herri Anitza tartean. Zer balorazio egiten duzu?

Oso balorazio positiboa egiten dugu. Guk askatasuna eta demokrazia errespetatzen ditugu. Hiritarren sortu eta onartu ditugun legeak errespetatzen ditugu. Plataforma horiek ETA babesten dute eta legez kanpo daude. Legea errespetatzen ez dutenek eta terroristei babesa ematen dietenek ezin dute denon zergen bitartez heriotza eta terrorea subentzionatu, ezta onartzen ez dituzten erakundeetan babestu ere.

*“Etxebizitzaren arazoa eta komunikabideak hobetzea dira Arrasateko premia handienak”*



IU-EB

## Joseba Ugalde

ARRASATE / 51 URTE / ARDURA SOZIALAK

Joseba Ugalde Arrasaten jaio zen 1952an. Alderdi Komunistan ibili zen, hamabost urtez; horietatik, lau urte Euskadiko PCEko komite orokorrean egin zituen. Ezker Batua sortu zenetik alderdi horretan ibili da, eta azkeneko zortzi urteotan zinegotzi izan da Arrasaten. Bestalde, kooperatiban ardura sozialak ditu.

### Zein premia nagusi ikusten duzu Arrasaten? Premia horiei aurre egiteko zein ekimen proposatzen duzu?

Gehien arduratzen gaituena etxebizitzaren salneurria da. Arrasaten babes ofizialeko 600 bat etxebizitza bideratu ditugu, baina ez da nahikoa. Etxebizitza merkeagoak egiteko salneurri tasatua bultzatu gura dugu. Bestalde, Arrasaten 700 etxebizitza hutsik daude; horietatik, 400 astelehenetik egubakoitzera okupatuta daude. Etxebizitzaren errentak oso garestiak direla eta, Jaurlearitzarekin eta Suradesarekin hitzarmenak egin gura ditugu etxe horiek errentan jartzeko. Beste aukera bat da jangela, sukaldea eta garbitegia banatuko dituzten etxebizitzak egitea, logela, egongela eta komuna pribatuak izango dituztena. Baita etxebizitzak kooperatiba moduan eraikitzea ere.

### Etxebizitzez gain, zein beste helburu ditu EBk Arrasaten?


Ahalik eta Udaleko erabaki esparru gehienetan hiritarren parte-

hartzea areagotu; erreferendumaren aldeko araudia bultzatu; Udaleko arartekoa sortu; Agenda 21eko programa jarraitu; eta ume eta gaztetxoek erabakiak hartuko dituzten foroak sortu, besteak beste.

### Auzitegi Konstituzionalak ezker abertzaleko hainbat plataforma legez kanpo utzi ditu, Herri Anitza tartean. Zer balorazio egiten duzu?

Gobernuak, terrorismoaren arazoari bere moduan aurre egin guran, Batasuna eta plataforma legez kanpo utzi ditu. Milaka euskaldun terroristatzat hartu dituzte, eta edozein egunetan alderdien legez kanporatze hori zabaldu eta talde gehiago sartuko dituzte. Horrek guztiak Euskal Herrian bizi dugun egoera okerrera eramango du eta badirudi autonomia deuseztatu egin gura dutela. Arrasaten ezker abertzaleak daukan ordezkaritza handia kontuan hartuta, arazo larri baten aurrean gaude, milaka hauteslek gura duten botoa ezin eman izango dutelako.

*“Udaleko erabaki esparruetan herritarren parte-hartzea areagotu gura dugu”*



ARALAR

## Joxe Etxeberria

ARRASATE / 52 URTE / GALDATEGIKO DISEINATZAILEA

Joxe Etxeberria Berastegin jaio zen 1951n, baina 14 urte zituela Arrasatera etorri zen bizi izatera. Eskola Politeknikoan Maisu Ikasketa Industrialak egin zuen. Gaur egun Aguraingo galdategi baten egiten du lan, diseinatzaile. Lehenengo aldia da politikagintzan dabilena.

### Zein premia ikusten duzu Arrasaten?

Arrasaten zer hobetu badagoela uste dugu, arlo hauetan oinarrituta: etxebizitzaren arazoa, herri antolaketa eta ingurumena, kulturaguneak, hezkuntza, euskara eta sexu bereizketak.

### Premia horiei aurre egiteko zein ekimen proposatzen duzu?

Etxebizitzaren arazoa dela eta, argi dago etxe gehiago eraikitzea ez dela arazoaren irtenbidea. Irtenbideetako bat egun hutsik dauden etxebizitzak aprobetxatzea izan daiteke. Alokairua bultzatu behar da bai neurri fiskalak ezarrita bai alokairuaren izen on sozialaren bidez.

Herri antolaketa eta ingurumenaren gainera, orain arte Arrasaten bideratu diren planek ingurunea apurtu dute. Nekazaritzari laguntza handiagoak eskaintzeaz gain, hainbat plan suntsitzaile (Urkulukoa kasu) guztiz gaitzesten ditugu, eta beharrezkoa da garapen jasagarriaren bidetik jotzea: garraio publikoari

garrantzia eman, hiriekiko loturak hobetu, Gipuzkoako trenbide sarea berreskuratu...

Bestalde, kulturaguneen kudeaketa bide egoikitik eraman nahi dugu, Arrasateko eskaera asetzeko asmoz. Hezkuntza arloan, 0 eta 3 urte arteko eskola publikoa eta doakoa bultzatu gura dugu. Euskararen arloan, berriz, orain arte euskara hedatzeko eman diren aurrerapausoekin jarraitu gura dugu. Azkenik, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eta errespetuan urratsak eman diren arren, oraindik badago zer egin.

### Auzitegi Konstituzionalak ezker abertzaleko hainbat plataforma legez kanpo utzi ditu, Arrasateko Herri Anitza tartean. Zein balorazio egiten duzu?

Herritar askok botoemaile izateko eta botoa jaso ahal izateko eskubidea galdu dute. Demokraziaren oinarriak urratzen ditu. Orain guztiondako garrantzitsuen herrigintzan ibiltzea da, lankidetzaren bultzatzea eta adostasuneko puntuak aurkitzea.

*“Argi dago etxebizitzaren arazoa konpontzeko etxe gehiago egitea ez dela irtenbidea”*

HIRIGINTZA/ Osoko bilkura

# Agintaldiko azkeneko osoko bilkura martitzenean

UBANE MADERA

**Oraingo agintaldiko azkeneko osoko bilkura egingo du udalbatzarrak datorren martitzenean, hilaren 20an. Gai zerrenda luzea izango dute aztertzeke. Besteak beste, Egitamu Orokorrekin lotutako zenbait atal landuko dituzte.**

Foru Aldundiak joan den apirilean onartu zuen Arrasateko Egitamu Orokorra. Behin betiko onespenera eman zion Egitamuari, baina, baldintza batzuekin. Hain zuzen ere, datorren martitzeneko osoko bilkuran landuko dituzte baldintza horietako batzuk.

Adibidez, Foru Aldundiak jakinarazi zion Udalarari Egitamuak dioenaren kontra, hasiera batean ez dituela bere gain hartuko Arrasateko Mendebaldeko Saihesbidea eraikitzearen kostuak. Horrez gainera, Arruena eremuan apartakaleku moduan kalifikatutako eremua kendu egin beharko dutela ere adierazi zion. Eta baita ere, udalerrria zeharkatzen duten ubideetan ez ohiko uholdeak izateko dagoen aukera aztertu eta aurkeztu beharko dutela.

## LUR HIRITARREZINA

Lurraren kalifikazioaren gaineko beste zehaztapen batzuk egin beharra ditu Arrasateko Udalak Diputazioak hala eskatuta. Adibidez, Aldundiaren txostenak honakoa dio: "Ordenantzek espresuki zehaztu beharko dute lur hiritarrezinaren barruan zehaztutako eremu guztientzako, nekazaritza edo abeltzaintza ustiapenera lotuta ez dagoen etxebizitzak eraikitzea debekatuta dagoela".



Egitamu Orokorraz gain, Etxe Txikiak ere berberagai izango dira batzarrean.

Bestalde, hirigintza arauekin lotuta, Gipuzkoako Foru Aldundiak dio *a posteriori* erabaki beharko dutela Egitamua kudeatzeko zein sistema erabiliko duten, eta ez orain, Egitamuak dioen moduan. Horrez gainera, oraingoz, behintzat, Atxabalpe eta Akisoalde inguruak lur hiritarra izango direla ere azaldu dio, baina, aldiz, Olandixo eta Biziola lur hiritarrezinak izango direla.

Horiek eta beste baldintza batzuk ipini dizkio Diputazioak Arrasteko Udalarari. Behin eskatutako aldaketak egin eta gero, Udalak sei hilabeteko epea izango du testu bateratu bat egin eta berriro ere Foru Aldundiari bidaltzeko.

## ETXE TXIKIAK

Eta, Egitamu Orokorraz gainera,

Etxe Txikiekin lotutako beste gai bat ere landuko du udalbatzarrak datorren martitzenean. Hain justu ere, Etxebizitzen Egitamuan zehaztutakoaren arabera, hitzarmena egin behar du Udalak Etxe Txikietako zenbait jaberekin. Etxebizitza Egitamu horren arabera, Etxe Txikietako baten truke, garajedun etxebizitza bat emango die Udalak proposamena onartu zuten jabeek. Hortaz, martitzeneko batzarrean hitzarmen horiek gauzatzea proposatuko dute.

Bestalde, kultura etxe berriko lanak berberagai izango dituzte. Eta Hirigintza Sailaren beste hiru hitzarmen aztergai izango dira.

Horiekin guztiekin batera, Udaleko bestelako batzordeetako gaiak ere izango dira aztergai. Hortaz, litekeena da batzar luzea izatea.

HIRIGINTZA/ Garaia Berrikuntza Gunea

# Onartu dute Garaia urbanizatzeko proiektua

Poliki-poliki, baina eten barik. Hala dabil garatzen Garaia Berrikuntza Gunea egiteko proiektua. Hain justu ere, oraingoa, gune hori egiteko urbanizazio proiektua onartu du Arrasateko Udalak.

Behin-behineko onespenera eman diote proiektu horri. Izan ere, orain jendaurrean dago, gura duenak alegazioak egiteko.

Edozelan ere, onartu dute proiektua. Horrek esan gura du, besteak beste, Gau-Txori inguruko etxebizitzak, Urta baserria eta Muñoa izeneko lantegiak bota egingo dituztela. Izan ere, horiek dauden lekuan Garaia Berrikuntza Gunea joateko biri-

bilgunea eraiki behar dute, GI-2620 errepidean, alegia.

Udalak onartu duen proiektuaren arabera, hortik gora beste errepide bat egingo dute, Berrikuntza Gunearen errepide nagusia izango dena. Goraino iritsiko da errepide hori.

Errepide nagusi horrek hiru lotune nagusi izango ditu: beheko biribilgune gertu beste biribilgune bat eraikitzeke asmoa dute. Biribilgune horren bitartez lotuko dute, besteak beste, Uribe auzoa. Eta, errepide nagusiak izango duen beste lotune batek Udalarako bidearekin lotuko du Garaia Berrikuntza Gunea.

## BERRIKUNTZA SUSTATZEKO

2000ko abenduan eratu zuten Garaia, 20.000.100 euroko kapital sozialarekin. Berrikuntzari laguntzeko azpiegitura moduan jaio zen, MCCren gidaritzapean eta Mondragon Unibertsitateko jakintza zientifikoaren eta Ikerlan Teknologia Zentroaren laguntzarekin.

Horrez gainera, zenbait erakunde publikoren sostengua du.

Besteak beste, unibertsitatea, ikerketarekin lotutako zentroak, teknologia zentroak eta enpresen I+G delakoarekin lotutako atalak izango ditu Uribarrin kokatuko den gune hark.

## LABUR

### Espainiako gerran fusilatutakoek gaineko ekimenak izango dira astelehenean

Debagoieneko Fusilatuen Senitarteko eta Lagunen Batzordeak hainbat ekimen antolatu ditu datorren astelehenerako. Hasteko, 18:30ean batzarra egingo dute Monterronen. Arrasaten ipini behar duten monolitorako leloa erabakiko dute. Horren ostean, 19:00etan, Monterronen bertan ipiniko duten erakusketa inauguratuko dute. Besteak beste, prentsaurrekoa emango dute. Eta ekitaldi horren ostean, Arantzadi elkarteko auzitegiko mediku Pako Etxebarriak berbaldia emango du. Espainiako gerrako hilobi komunek gainean berba egingo du. Ekimen horien guztien helburua da, besteak beste, urte haietako gertakariak gogora ekartzea, inoiz eta inon berriro ez errepikatzeke. Hala adierazi izan du Batzordeak.

### Hirugarren Munduko herriekin lankidetzak proiektuak lantzeko dirulaguntzak

Ia 100.000 euro banatuko ditu Arrasateko Udalak herriko 20 bat talderen artean. Hain zuzen ere, Hirugarren Munduko herriekin lankidetzak proiektuak garatzen dituzten gobernuz kanpoko erakundeendako da kopuru hori. Adibidez, emakume gazteendako bigarren mailako ikastetxe bat Perun eraikitzeke 13.000 euro onartu dituzte; zailtasunak dituzten Nikaraguako Diriamba herriko umeak gizarrean birtxertatzen laguntzeko 10.000 euro onartu dituzte; eta ia beste 4.000 euro Oporrak Bakean izeneko programarendako.

### Gizarte gaiak lantzen dituzten taldeendako dirulaguntzak onartu dituzte

Gizarte gaiak lantzen dituzten taldeen eta erakundearen artean banatzeko dirulaguntzak erabaki ditu oraingo astean Gobernu batzordeak. Ia 35.000 euro erabiliko dituzte horretarako. Adibidez, SUDC elkarteari 17.000 euroko laguntza emango dio Udalak; Harreman, Komite Internazionalistak, ATECE, eta ADHAGI elkarteei 1.500 euro pasatxo; 800 euro pasatxo Atzegiri; 900 euro ACABEri eta 1.500 euro urtero ospatzen duten Atzeratuen Egunerako.



## Zigorrola San Isidrotan

Bete-beteta datoz Zigorrolan San Isidro jaiak: joan den eguenean hasi ziren, erretiratuen arteko karta-joko txapelketekin; eta atzo jarraitu zuten, San Isidro eguna zen-eta. Besteak beste, baserriarrek zaindariaren omenezko bazkaria egin zuten; gaur, herriz, goizeko ekitaldiez gain, gauean afaria egingo dute erretiratuek, eta 23:00etan rock kontzertua egongo da, Piru-ren omenez, zapa-tuan denetik egongo da: pilota partiduak, Urrezko Astakiloak izendatzea, sokatira, dantzaldia...; eta bukatzeko, domekan, besteak beste, suzko erruberak egongo dira 00:00etan.



## HAUTESKUNDEEN USAINEAN



### Herri Anitzaren ustez ez dago zilegitasunik hauteskundeetan

ARRASATE PRESS

Legez kanporatzearen kontrako protesta ekitaldia egin zuen Herri Anitzak zapatuan. Ekimena aprobetxatu eta hauteskundeetarako hautagaiak aurkeztu zituzten. Izan ere, botoa eskatu dute.

Txalaparta hotsekin eta bertsolariak lagunduta ekin zion Herri Anitzak jaialdiari. Besteak beste, euskal presoek kartzeletan bizi duten egoeraren berri eman zuten haien senideek. Horrez gainera, presoak Euskal Herrira ekartzeko aldarrikapena egin zuten.

Hauteskundeetan parte hartzeko debekuaren gainean Xabier

Zubizarretak esan zuen zilegitasun bariko hauteskundeak izango direla, aukera guztiek ezin izango dutelako parterik hartu: "Zilegi gobernatzeko modu bakarra herritar guztien esku-hartzearekin da".

Kontuak kontu, maiatzaren 25ean Herri Anitzaren boto-txartelak eskuragarri egongo direla gaineratu zuen. Besteak beste, esan zuen legez kanporatzearekin Madrilgo gobernuak gerra deklaratu diela: "Ez diegu gerrarekin erantzungo. Ez zaigu interesatzen gerra, lan egiten jarraitzea baizik. Hori da orain arte egin duguna eta egiten jarraituko duguna".

Bestalde, eguaztenean, AuBk deituta, ekitaldi politikoa eta manifestazioa izan ziren Arrasaten.

### Bizikidetzaren aldeko programa aurkeztu du PSE-EEK

ARRASATE PRESS

Ohiturari jarraituz, arrosak banatzen ekin dio Arrasateko alderdi sozialistak hauteskunde kanpainari. Egubakoitzean egun osoa eman zuten lan horretan, azoka txikian eta San Andres auzoan, besteak beste.

Arrasateko zinegotzi taldea ibili zen arrosak banatzen. Blanca Roncalek, besteak beste, honakoa adierazi zion GOITBri: "Herritarren parte-hartze handigoa izango duen gobernu gura dugu. Hori aldatu gura dugu Arrasaten". Ildo horretatik ezarri diote Arrasaterako programari leloa: *Bizikidetzarako guneak eraikiz*. Arrosarekin bate-

ra banatu zuten euren programaren laburpena, eta martitzenean aurkeztu zuen prentsurrekoan. Besteak beste, auzoak birgaitzeko programa bereziak abiarazteko asmoa dute, garraio publikoa indartzeko, aparkaleku gehiago egiteko, etxebizitzaren arazoa konpontzeko eta gizarte zerbitzuak eta adinekoen arretarakoak indartzeko. Herritarrei informazio zehatzagoa ematea ere proposatzen dute, udal buletin baten bidez. Baina, bereziki, bizikidetzarako guneak indartu gura dituzte, hiritarzentroen bitartez.

Bestalde, udal taldearen lan egiteko modua kritikatu zuten; herritarren parte-hartzea nabarmen mugatuz egin dutela diote.


## LABUR

### Institutuko aurreneko zuzendaria hil da

Arrasate-Aretxabaleta Institutuak jakinarazi digunez, Institutuko lehenengo zuzendari izan zen Vicente Guinea Viguri hil egin da. Maiatzaren 3an zendu zen, Elxen (Alacant). Institutukoek zera diote: "Gertaera hauek beti dira zirrargarri, eta areago orain dela urtebete, ikastetxeko 25. urteurrena zela-eta, gure artean izan genuelako, beti bezain alai". Bihar, zapatua, azken agurra egingo diote Elxen.

### Arrasatear bat eta haren senarra hil ziren Kanpanzarren

Astelehenean kamioi batek eta auto batek aurrez aurre jo zuten Epele eta Sara artean. Bikote bat zihoan autoan, eta istripua gertatu eta berehala, senarra (Jaime Ortiz, 34 urteko tolosarra) hil egin zen. Haren emaztea, Arantzazu De Bedialauneta 30 urteko arrasatearra, eskualdeko ospitalera eraman zuten larri zaurituta, eta bi egun geroago hura ere hil egin zen.




San Juan 1 A,  
BERGARA  
943 76 54 91  
Faxa: 943 76 08 04

# UGARTE

## ARROZTEGIA-ALTZARIAK



Apainketa • Soruak • Leihoak • Ateak • Horma armairuak





## IRRATI ESATARI GAZTEAK

**A**rizmendi Ikastolako Almen guneko ikasle horiek saio bat egiten dute Arrasate Irratian: *Berriketan*. Saioan elkarrizketak, musika, erreportajeak eta beste hainbat gauza egiten dituzte. *Berriketan* saioa astelehen arratsaldeetan ematen dute, arratsaldeko zazpi eta erdietatik zortziak arte. Gazte-gaztetatik hasi dira irrati esatari lanetan.

## EKIN EMAKUME TALDEA PARISEN

**A**pirilaren 30etik ekainaren 4ra arte Arrasateko Ekin Emakume Taldea eta ibarreko beste emakume batzuk Parisen egon ziren. Eurekin batera Gasteizko Bagare taldeko kideak joan ziren. Guztira 33 laguneko taldetxoa egin zuten, eta Parisen egin zituzten hiru egunak ondo baino hobeto aprobetxatu zituzten. Parisen derrigor bisitatu behar diren lekuetan egon ziren: Eiffel dorrean, Garaipenaren Arkuan, Eliseoko Zelaietan, Concorde plazan... Horrez gainera, eta kasualitatez, *Amelie* filma grabatu zuten tabernan afaldu zuten egun baten. Ederto afaldu zuten eta, gainera, ez ei zen oso garestia izan.



## BRETAINIARRAK ARRASATEN

**A**stelehenean Kemperko hainbat ikasle Arrasaten egon ziren, Diwango eskola bretainiarrekoak. Ikaspilota Elkartek gonbidatuta etorri dira gurera, eta egun hauek Debagoienean egin dituzte. Txangoaren helburua Bretainiaren eta Euskal Herriaren arteko harremanak sendotzea eta elkarren arteko ezagutza bultzatzea izan da. Astelehen arratsaldean Udaleko ordezkariak ongiatorria egin zieten udaletxean. Bisita askari eder batekin amaitu zen, eta bat edo beste kantuan egitera animatu zen.



FUTBOLA

# Mondra preferente mailako talde izango da Soraluzeri irabazten badio

Joan den zapatuan Mondrak garaipen ezin garrantzitsuagoa erdietsi zuen Seguraren zelaian (0-1)

XABIER URZELAI

Joan den zapatuan aurrerapauso galanta egin zuen Mondrak Seguraren zelaian. Josu Zubia-  
ren eta David Zaitegiren mutilek 0-1 irabazi zuten Seguran, Mondragoeko jarraitzaile askoren indarrak lagunduta. Baina dena ez dago eginda, partidua bat geratzen da-eta.

Mondrak azken jardunaldiko partidua Soraluzeren kontra jokatu du bihar, arratsaldeko lau eta erdietan, Atxabalpen. Mondrak lehenengo postuan jarraitzen du, eta Soraluzeren kontra irabaziz gero, datorren urtean preferente mailan egongo da.

Guztia eginda dagoela uste duenak, baina, ustekabe galanta jaso dezake. Soraluzek, joan den asteko kontrarioak moduan, ez du ezer jokoa, baina Segurakoek inoiz baino motibatuago jokatu zuten arrasatearren kontra. Baliteke Soraluze ere gogotsu zelairatzea, eta Mondra loak hartuta zelairatzen bada, Atxabal-

pera hurreratzen diren jarraitzaileek gura baino gehiago sufrituko dute.

Biharko partidua, azken baten, Mondrak egin duen denboraldi biribilaren gailurra izan behar du; partidua irabazi arte, baina, ez dezagun ezer ospatu.

## SEGURAN SEKULAKO GIROA

Joan den astean mondragoetar asko hurreratu zen Segurara. Gazte asko, baita nagusiagoak ere. Segurako jarraitzaileak zur eta lur geratu ziren horrenbeste mondragoetar ikusi zutenean. Jarraitzaileak, gainera, ez ziren isilik egotera joan, Mondra animatzera joan ziren.

Taldeak asko eskertu zuen jarraitzaileen berotasuna, kanpoan jokatu beharrean etxean jokatzeko zebiltzala zirudielako. Partidua, baina, ez zen batere ona izan, eta Mondrak eta jarraitzaileek asko sufritu zuten. Arrasateko taldeak bederatzi jokalarirekin amaitu zuen partidua, baina azkenean, hiru puntuak Arrasatera ekarri zituzten.



XABIER URZELAI

Arrasatearrek hainbat gol aukera izan zituzten, baina partiduko gol bakarra Segurako atzelari batek egin zuen bere atean.

## Kenci Arrasatek 90-66 galdu zuen denboraldiko azken partiduan

X.U.

Kenci Arrasatek ezin izan digu igoera fasean poztasunik eman, jokatu dituzten partidua guztiak galdu egin dituzte-eta. Joan den asteburuan, denboraldiko azken norgehiagokan, Jostaldik 90-66 irabazi zion Kenci Arrasateri. Mondragoeko taldeak ezin izan zuen liderraren kontra ezer egin.

Hemendik aurrera deskantsatzeko aukera izango dute Kenci Arrasate Saskibaloitza Taldeko mutilek. Denboraldiko helburu nagusia aspaldi bete zuten -maila mantentzea- eta igoera fasean presio gabe jokatu dute. Iker Zubiriak, gainera, ez ditu jokalaririk guztiak eskura izan, igoera fasean jokalaririk asko min hartuta egon dira-eta. Hori guztia kontutan hartuta, argi dago igoera fase txukun bat egitea ia ezinezkoa zela.

Kenci Arrasate igoera faseko azken postuan geratu da. Lauko finala jokatzeko, berriz, Jostaldi eta Atletico San Sebastian taldeak sailkatu dira. Jaitsiera postuak erabakitzeke ligaxkan Calasancio eta Kalagorri taldeak geratu dira azkeneko postuetan, eta bi talde horiek galduko dute maila.

Kantxa barruan oso fin ibili ez



MIKEL ARANBURU

3x3 Saskibaloitza Txapelketan gazteek maila polita erakutsi zuten.

badira ere, Arrasate Saskibaloitza Taldeak kantxetatik kanpo egin duen lana aipatzeko modukoa da, eta zapatuan jokatu zen 3x3 Saskibaloitza Txapelketa da horren erakusle.

## 3X3 TXAPELKETA ARRAKASTATSUA

Arrasateko Kirol Proiektuak eta Arrasateko Saskibaloitza Taldeak antolatuta, 3x3 Saskibaloitza Txapelketa jokatu zen zapatuan

Lau bide plazan. Inoiz baino parte-hartze handiagoa izan zuen txapelketa: 106 taldek eman zuten izena. Txapelketa goiz eta arratsalde jokatu zen, eta 12 kantxa jarri zituzten gazteek saskibaloian egiteko. Materiala Tau Baskoniak utzi zien, eta eskertzeko da hori. Modu ezin hobea da Arrasateko harrobia zaintzeko.

## Arrasateko pilotariak Debarroko finalerdietan

X.U.

Iker Zugasti eta Aitzol Lazkano Arrasateko senior mailako pilotariak Debarroko Txapelketako finalerdietarako sailkatu dira. Mondragoetarrek txapelketa bikaina egiten dabilta, eta jokatu dituzten partidua guztietatik Aretxabaletako Errasti anaien kontra bakarrik galdu dute.

Joan den astean pilotari mondragoetarrek 22-21 irabazi zieten Bergarako pilotariei. Martitzen arratsaldean, berriz, Zugastik eta Lazkanok erraz irabazi zioten Antzuolari (4-22). Arrasatearrek dagoeneko Debarroko Txapelketako finalerdietarako sailkatuta

daude, baina Aretxabaletako pilotarien kontra jokatu duten partiduan lehenengo postuan edo bigarren postuan sailkatuko diren erabakiko da. Zeingehiagok hori datorren eguaztenean jokatu dute, Uarkapen, arratsaldeko zazpi eta erdietan. Joaneke partiduan Aretxabaletako pilotariak 22-19 nagusitu ziren; hortaz, partidua irabazteaz gainera, bi tanto baino gehiagoko aldearekin irabazi beharko dute arrasatearrek.

Aipatu beharra dago Aitzol Lazkano pilotari arrasatearrek Elgetako Lau t'erdiko Txapelketan hartuko duela esku. Txapelketa datorren astean hasiko du.

XAKEA

## Berdintasuna nagusi Arrasate Hiria Xake Txapelketako lehenengo jardunaldian

Joan den egubakoitzean Arrasate Hiria Xake Txapelketako lehenengo jardunaldia jokatu zuten, eta lehiakideen artean berdintasuna izan zen nagusi. Aurten, txapelketa itxia izan beharrean, txapelketa irekia izango da, eta 28 xakelarik eman dute izena. Lehenengo jardunaldian, Txema Hernandok ez ezik, nazioarteko sailkapenean dauden jokalaririk guztiak irabazi egin zuten, kostata, baina. Txapelketako faboritoetako batek, Luis Angel Ortégak, justu-justu irabazi zuen Daniel Zabarbide gaztearen kontra. Gaur, arratsaldeko zazpitan, bigarren jardunaldia jokatu dute.

GIMNASIA ERRITMIKOA

# Domekan gimnasia erritmikoko erakustaldia egingo dute Musakolan

75 gimnastak egindako erakustaldiaz gozatzeko aukera egongo da domekan kiroldegian

XABIER URZELAI

Domekan, Musakolako jaien egitarauaren barruan, gimnasia erritmikoko erakustaldia egongo da Musakolako kiroldegian. Erakustaldia goizeko hamaika eta erdietan hasiko da, eta Arrasateko 75 gimnastak ikasturte osoan egindako lana erakusteko aukera izango dute.

Arrasateko Gimnasia Taldea jo eta ke dabil lanean, urteko sasoi honetan gimnastak hainbat txapelketatan buru-belarri dabilta-eta. Hala ere, Musakolako jaietan gimnasia erritmikoko erakustaldiak ez du kalerik egingo. Hala, 5 eta 18 urte arteko gimnastek askotariko ariketak egingo dituzte, hainbat mailatan banatuta. Guztira 75 gimnastak hartuko dute parte erakustaldian, eta kirol ekitaldi ikusgarria izango da.

**A MAILAKO GIPUZKOAKO FINALA**

Joan den zapatuan A mailako Gipuzkoako Txapelketako finala jokatu zuten, eta Mondragoeko gimnastek emaitza onak lortu zituzten: gazte mailan, taldeka, Arrasateko gimnastek bigarren postua eskuratu zuten; A modalitatean, bakarkako saioan, Idure García lehena izan zen eta Maria Etxebarria bigarrena; B modalitatean, berriz, Maialen Balentziagak hirugarren postua eskuratu zuen.

Kadete A mailan, bakarkako saioan, Marta Etxebarria hiru-



Aurten ere Arrasateko gimnastek ez dute kalerik egingo San Isidroan.

ARRASATE PRES

garrena izan zen eta Naiara Zabarte bosgarren sailkatu zen; infantil A mailan Ainhoa Apaolaza bigarrena izan zen, Leire Poyato hirugarrena, Jone Goikolea laugarrena eta Mireia Rodríguez bosgarrena; azkenik, alebinetan, bakarkako saioan, Saioa Arriola hirugarren sailkatu zen.

**EUSKADIKO TXAPELKETA**


Joan den zapatuan jokatu zen Gipuzkoako Txapelketan lortutako emaitzei esker, Ainhoa Apaolaza, Saioa Arriola, Jone Goi-

kolea, Leire Poyato eta Mireia Rodríguez domekan jokatu den Euskadiko Txapelketan izango dira. Hori dela-eta, gimnasta horiek ezin izango dute parterik hartu San Isidro jaietako erakustaldian.

**UDABERRI TXAPELKETA**

Bestalde, Udaberri Txapelketako bigarren fasea hasiko da bihar, zapatua, Andoainen. Arrasateko 18 gimnastak hartuko dute esku txapelketa horretan, benjamin, alebin eta infantil mailetan.

ZALDIBARARETOFUTBOLA



ZALDIBAR TXAPELKETAKO ANTOLATZAERAK

Etixerat eta AT Celaya taldeek B multzoko lidertza izango dute jokoan.

**EMAITZAK**

**A MULTZOA**

|                            |     |
|----------------------------|-----|
| AC Surcos - Saukelu Scream | 4-6 |
| Koka Juniors - Betraye     | 1-8 |
| Etixerat - Lasagabaster    | 9-3 |
| You Know! - AT Celaya      | 4-5 |

**SAILKAPENA**

**A MULTZOA**

|                   |   |   |
|-------------------|---|---|
| 1. Betraye        | 2 | 1 |
| 2. Saukelu Scream | 2 | 1 |
| 3. AC Surcos      | 0 | 1 |
| 4. Koka Juniors   | 0 | 1 |

**PARTIDUAK**

**MAIATZAK 17, ZAPATUA. EPAILEAK**

|                                  |         |
|----------------------------------|---------|
| 12:00: You Know! - Lasagabaster. | Antola. |
| 13:00: Etixerat - AT Celaya.     | Antola. |

**MAIATZAK 18, DOMEKA**

|                                  |         |
|----------------------------------|---------|
| 12:00: Saukelu Scream - Betraye. | Antola. |
| 13:00: Koka Juniors - AC Surcos. | Antola. |

**B MULTZOA**

|                 |   |   |
|-----------------|---|---|
| 1. Etixerat     | 2 | 1 |
| 2. AT Celaya    | 2 | 1 |
| 3. You Know!    | 0 | 1 |
| 4. Lasagabaster | 0 | 1 |

**HIRUGARREN FASEA JOKOAN**

**USTE BAINO GOL GEHIAGO**

Txapelketaren hirugarren fasean gaude dagoeneko, eta, ustez, taldeen artean berdintasun handia egon beharko luke. Lehenengo jardunaldiko emaitzek, baina, kontrakoak diote. Betraye-ek zortzi gol egin zituzten Koka Juniors taldeari eta Etixerat-ek 9-3 irabazi zion Lasagabaster-i. Gainerako partiduetan parekotasuna egon zen.

**ZIGOR GEHIAGO**

Saukelu Scream taldeko jokalariek batek ezin izango dituzten hurrengo partidua biak jokatu. AC Surcos taldearen kontrako partiduan epaileari baloiarekin jo ziolako. Baina ez da hori zigor bakarria izan; izan ere, Koka Juniors taldeko jokalariek batek partidua bateko zigorra izango du, epailea iraintzeagatik. Badirudi txapelketako azken fase honetan jokalariek batzuk behar baino urduriago kantxaritzen direla.

# Aitor Uribesalgo izan zen azkarrena Arrasate-Oñati lasterketan

Gipuzkoako, Bizkaiko, Arabako eta Frantziako lasterkariak izan ziren zapatuan Arrasate eta Oñati banatzen dituzten hamaika kilometroak korritzen. Eguraldia lagun, sekulako giroa egon zen, bai lasterketa hasieran bai-

ta lasterketa amaieran ere. Guztira 145 korrikalarik amaitu zuten lasterketa, eta Aitor Uribesalgo iurretarra izan zen azkarrena. Joan den astean iragarri genuen Aitor Uribesalgo lehenengo postuetan ibiliko zela, Ota-

la Zelaiko krosean sasoi betean zegoela erakutsi zuelako, eta iurretarrak ez zuen kalerik egin (0:35:48). Bigarrena Roberto Ruiz gasteiztarra izan zen (0:35:57) eta hirugarrena Zaldibiako Jose Javier Cuadrado; emakumeetan, Raquel Llamas izan zen azkarrena (0:41:07) eta Rosa Lasagabaster izan zen bigarren (0:50:31).

**ARRASATEAR AZKARRENAK**

Arrasateko hamasei lasterkaririk amaitu zuten lasterketa: gizonzkoetan, azkarrena Jose Ramon Gutiérrez izan zen (0:41:00); emakumezkoetan, berriz, Arantzazu Errasti izan zen azkarrena (0:54:47).

Arrasate-Oñati lasterketaren 21. aldian oso arrakastatsua izan da. Urtero jende askok ematen du izena, eta orain, urte osoa geratzen da aurretik datorren urteko lasterketa prestatzeko.



OIHAN VEGA

Aitor Uribesalgo bakarrik iritsi zen helmugara.

**KIROLAGENDA**

**JOKATZEKOAK**

**ESKUBALOA**

|                              |  |
|------------------------------|--|
| AGR Arrasate - Urola Agip    | Lehen seniorrak. Zapatuan. 17:45. Iturripen. |
| Aloña Mendi - Arrasate       | Gazteak. Kopa. Zapatuan. 16:00. Zubikoan.    |
| Gatz Museoa - Pnem. Elgoibar | Gazteak. Kopa. Zapatuan. 16:00. Iturripen.   |
| Aloña Mendi - Gatz Museoa    | Kadete. Kopa. Domekan. 12:00. Iturripen.     |

**FUTBOLA**

|                   |   |
|-------------------|---|
| Mondra - Soraluze | Lehen erregionala. Zapatuan. 16:30. Atxabalpen. |
|-------------------|---|

**Anaitasuna - Mondra**

Ohor. gazteak. Domekan. 16:30. Azkoitia.

**Aretxabaleta Almen - Arrasate**

Primera kadete. Zapatuan. 12:00. Ibarren.

**Urola - Mondra**

Neskak. Domekan. 18:45. Argixaon.


**SASKIBALOA**

**Kenci Arrasate - Viajes Marfil**

Seniorrak. Zapatuan. 18:00. Iturripen.

**Aloña Mendi - Kenci Arrasate**

Junior mut. Zapatuan. 11:00. Zubikoan.



*Arrasatear guztiok  
gonbidatuta zaudete  
Emakume Txokoaren  
inauguraziora*

*Noiz: Maiatzaren 21ean, 18.30etan.*

*Non: Uarkape frontoiaren  
atzean.*



ARRASATEKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGON

■ Emakume Salla

# meusakolako jaiak

## MAIATZAK 16, ostirala (Jubilatuen eguna)

**Goizeko 10:00etan**

Kanpai errepika eta kohete jaurtiketa, jaiak hasi direla iragar-  
tzeko.

**Goizeko 10:15etan**

Haurrentzako kirol-jokoak auzoko eskoletan.

**Goizeko 11:30etan**

Danborrada, San Frantzisko ikastolako umeekin.

**Arratsaldeko 17:00etan**

Herri merienda, auzoko haur guztientzat.

**Arratsaldeko 19:00etan**

Ikurrina igotzea. Buruhandiak, gaiteroekin batera. Alkatetzatik  
gozokiak botatzea.

**Arratsaldeko 19:30etan**

Auzoko jubilatuentzako jai-afaria Kataide jatetxean.

**Gaueko 23:00etan**

Rock Kontzertua (Piruren omenaldia): ARKADA SOCIAL,  
JODETE, LOS KRETINOS, THE JUKEBOX, DESKONTROL  
eta KAÑERIA 13

**Gaueko 00:00+1ean**

WOOD-BY-SER.

**Gaueko 00:00+beranduau**

BER-TA-TIK.

**Gaueko 00:00+beraanduuuuuau**

BER-TA-RA.

Egun osoan kohete jaurtiketa.



### SARRILAGINTZA

Giltzak, bonbilloak,  
urrutiko aginte tresnak

### LABANAGINTZA

Labanen, aiztoen,  
artazien, eta abarren salmenta  
eta zorrozketak

### KONPONKETAK

Oinetakoak eta aterkiak

### ERA GUZTIETAKO OPARIAK

Diru-zorroak

Oroigarriak

Giltzatak

Erreplikak

Agur-afarietarako artikulak

Hiper Eroski, 1 eta 3 • Arrasate  
Tel. eta faxa: 943 79 76 03



LIRAIN ILE APAINDEGIA

ELKANO KALEA 38 BEHEA. • TEL.: 943 79 52 37

## MAIATZAK 17, larunbata (Koadrilen eguna)

### Goizeko 10:00etan

Eguzki eta eguraldi ona.

### Goizeko 11:00etan

Pilota Partidua:

JOSE ANGEL AGIRRE (Kurasao) – TXISPAS (Saltzeroa)  
PEDRITO (El Indomable) – SIERRA (Zerra)

Bigarren partidua:

BEITIA (Kapitan) – IZAGIRRE (Txikito Legazpia)  
ARRIARAN (Bankerue) – J. VITORIA (Alaves oriundo de musakola)

### Eguerdiko 12:00etan

Herri txikiteoa, soinu jotzaileak alaiturik. Jubilatuen etxeko tabernatik irtengo du astoak.

### Eguerdiko 13:30etan

Mundu osoko kategorian, Urrezko Astokiloak eman eta jar-tzea.

### Arratsaldeko 14:00etan

Aurten ere ez da egingo manifestazio ofizialik, edo bai.

### Arratsaldeko 15:00etan

Herri bazkaria San Isidro eliza ondoan (eguraldi txarra egi-nez gero, aterpean egingo da), jatorrizko izeneko produk-tuez, hemengo ardoaz eta aukeratutako urez, Musakolako txarangak alaituta.

### MENUA:

- "LA MAIRE" Itsasoko adardunak idarrekin lagunduta, gogoratu ez gero egoki gaztuta.
- Baratzuri gabe ezaguna den Valentziako jakia, hemen berakatzarekin.
- Sukar aftosorik gabeko bildotsa gori-gori.
- Kuartelik ez duten Arabako herrietako lurreko soberaki-nak.
- Postreak aukeran.
- "Osaba Sabinoren" Akeita, Txola eta Txokorra.

### Arratsaldeko 16:00etan

XI. Xake irekia. Partida arinen modalitatea. San Antolineko ikastolan.


### Arratsaldeko 17:00etan

Herri kalejira.

### Arratsaldeko 18:00etan

San Isidro Sokatira sari nagusia.

### Arratsaldeko 19:30etan



## Taberna - Jatetxea

**HOSTAL  
MUSAKOLA**

Gipuzkoa Etorbidea z/g  
Tel.: 943 79 20 50



**OTXOA, S.L.**

Haziak, ferreteria,  
drogeria, jardinerako  
tresnak eta etxeko  
animalientzat osagarriak

Musakola Industrialdea 2 Tel.: 943 79 17 79



ARRASATE  
Maisu Arambai, 1  
20500  
Tel. 943 77 14 14

DURANGO  
Emodo, 11  
48200  
Tel. 94 620 30 37

Okondogia - Gaztegia  
**BEROGI**  
Etxeko Elakibak

## ESTRELLA TABERNA

Elkano, 3 Tel.: 943 79 20 82

## Txinato Taberna

Elkano kalea 9. Tel.: 943 79 20 65

## MUSAKOLA estankoa

Antxo Abarka, 6. Tel.: 943 79 17 57



**Erakusketa eta biltegia:**  
Kale txiki, 3 behe (Musakola)  
Tel eta faxa: 943 77 11 20

### Metal aroztegia eta PVC

Leihoak eta itxierak  
**Egur aroztegia**

Leihoak  
Atzak  
Armairu enpotatuak  
Armairu-fronteak  
Mota guzietako zoruak  
Lixatua eta berriztatua

### Osagarriak

Neurria egindako  
alfonbrak  
Gortinak, mahai  
eta aulkiak



## BEBERLY

Gipuzkoa Etorbidea, 9  
Tel.: 943 79 16 99

## Isana

*Heapaindegia*

Elkano kalea, 4 behe Tel.: 943 79 60 55



IN STALAKU N TZA ETA  
M U N TATZE ELEKTRIKO AK

- Argiztatze profesionalak
- D beinuzko argiztatzea

24 orduko zerbitzua: 610 57 88 77  
Gipuzkoa etorb. 37 Tel./Fax: 943 79 65 93



## Iluna taberna

Elkano 23 Tel.: 943 79 23 78

## Begoña

*Lurrindegia • Drogeria*

Gipuzkoa etorbidea, 33 Tel.: 943 79 03 73



HARATEGIA  
URDAITEGIA  
Maisu Arambai, 2  
Tel.: 943 79 29 14

Buruhandiak, gaiterokin batera.

**Gaueko 23:00etan**

Berbena goizaldera arte, TRIKIZIO taldeak alaituta. Beste berbena bat San Isidro eliza ondoan, KAIXO taldeak alaituta

**Gauerdian:**

Hainbat moda-ikuskezun auzoko pertsonaia xelebreenekin.

**MAIATZAK 18, igandea**  
(Pobre de mi)

**Goizeko 10:00etan**

Eguzki eta eguraldi ona.

**Goizeko 11:00etatik 14:00ak arte**

Puzgarriak.

**Eguerdiko 11:30etan**

Gimnasia erritmiko erakustaldia Musakolako kiroldegian.

**Eguerdiko 12:30etan**

Txikiteoa, Bikote-Maixa taldeak alaituta.

**Arratsaldeko 17:00etatik 20:00ak arte**

Puzgarriak.

**Arratsaldeko 18:30etan**

Dantzaldia Ardoa Barrura txarangarekin, betiko lekuetan.

**Gaueko 00:00etan**

Azken traka "Paseo maritimo"-an, suzko erruberak, sorpresa ikusgarria, agurra eta amaiera, datorren urtera arte.



 **Iturgintza**  
ERAKUSKETA:  
Gipuzkoa etorbidea 39, behea  
ARRASATE • Tel.: 943 77 01 85

**KORTABERRI** **Harategia**  
**Urdaitegia**  
Antso Abarka, 3  
Tel.: 943 79 20 28

TEL.: 609 14 25 25

 **ZIORLA**  
**GARRAIOAK**

PREMAZKO ZERBITZUAK  
NAZIONALA-NAZIO ARTEKOA

**HIPER EROSKI** Eguneroko  
kafetegia menua  
jatetxea  
Musakola Pol. z/g  
Tel.: 943 79 55 69

**J. Elorza**  
Harategia • Urdaitegia  
Joan Bengoa, 1 Tel.: 943 79 75 80

**MENETA**  
**TABERNA**

Etorri eta  
proba ezazu  
Menetako  
txorixue

Leniz

 **Motor**

BASO, LORATEGI ETA  
NEKAZARITZARAKO  
TRESNAK

STIHL VIKING

MOTOR SALMENTA  
ETA KONPONKETA

Gipuzkoa etorb. 9 • Tel.: 943 79 11 78

**ZIORLA**  
**Taberna**  
Antso Abarka 5. ARRASATE  
Tel.: 943 79 20 46

**IOSU**  
**KAFETEGIA**

Elkano kalea, 25  
Tel.: 943 77 03 66

**Maiatz**  
**ILEAPAINDEGIA**

Antso Abarka 3 behea. MUSAKOLA -ARRASATE  
Tel.: 943 79 58 78

 **ZIORLA**  
**FRUTADENDA**  
Ondo pasau jaiak!  
Maisu Aranbarri 2 behea. ARRASATE  
Tel.: 629 45 92 33



# Euskal Herriak zazpi, Aramaiok hAMAlau





## ELKARRIZKETA

JON RUIZ DE ZARATE/ARGAZKILARIA

# “Betidanik izan naiz argazkilaritza-zalea, txikia nintzenetik”

IKER BARANDIARAN

Jon Ruiz de Zarate arrasatearrak urte mordoak daramatza argazkiak egiten. ASA taldeko sortzaileetako bat da, eta azken lau urtetan Udaleko Gazte Sailak antolatzen duen argazkilaritza ikastaroa irakasle lanetan dabil.

### Noiz eta zelan hasi zinen argazkilaritzan?

Uste dut ia betidanik izan naitela argazkilaritza-zalea. Gogoan daukat jaunartzea egin nuenean osaba-izebek Kodak Instamatic kamera opari egin zidatela. Kamera harekin hasi nintzen argazkiak egiten, eta orduan zaletu nintzen. Dena dela, etxean ere bazegoen zaletasuna; izan ere, aitak eta osabak argazkiak egiten zituzten, eta hortik ere jasoko nuen zertxobait...

### ASA taldeko sortzaileetako bat zara...

Bai. 1989an, gure kasa lanean genbiltzan Arrasateko hainbat argazkilaritza-zale batu eta taldea eratu genuen. Gazte Ikastaroetako argazkilaritza ikastaroa ASako lokalean ematen dut.

### Bartzelonan egon zinen, argazkilaritza zela medio...

Bai, Bartzelonara joan nintzen Argazkilaritza Orokorra, Kreatiboa eta Editoriala ikastera. Oso gustura ibili nintzen, eta ilusioarekin etorri nintzen bueltan Arrasatera, han ere argazkilaritza profesionala landu nuelako eta asko ikasi nuelako. Bartzelonan izugarritzko aukerak eskaintzen ditu, lehiakortasun handia dagoen arren.

### Beste ikastaro batzuk ere egin dituzu?


Bai. Carlos Canovasekin Zarauzko Fotomuseum-en, Fernando De Bustosekin Donostian, Fernando Muxikarekin Herri Komunikabideen gaineko jardunaldietan...

### Zein lan nagusi egin dituzu orain arte? Zein motatakoak?

Denetik apur bat: publizitateko lanak, egunkari eta aldizkarietarako, enkarguzkoak... Musika taldeekin ere egin izan dut lan; musika taldeekin hasi nintzen, eta hainbat taldeekin birak egin izan ditut... Horrez gain, erretratuak eta sorkuntzako lanak ere egin ditut.

### Zein argazki egitea duzu gustuko?

Gustukoan ditudan argazkiak autorezkoak dira, sorkuntzako lanak: nik sortu, nik landu eta hasieratik bukaerara arte nik bideratzen ditudanak. Hala ere, orokorrean dena dut gustuko. Argazki-makinarekin lan egitea atsegin dut.



IKER BARANDIARAN

“Bartzelonatik ilusioarekin etorri nintzen, asko ikasi eta argazkilaritza asko landu nuelako”

Badaramatzazu urte batzuk Arrasateko Gazte Ikastaroen barruan argazkilaritza ikastaroak ematen. Zer moduz?

Honako hau laugarren urtea izango da. Bartzelonatik Arrasatera etorri bezain laster proposamena egin zidaten eta horretan jarraitzen dut. Gustuko dut ikastaro hori. Oso aberasgarria dela uste dut. Gainera, ikastaroak arrakasta du, interesa agertzen duten guztiendako adina leku ez da egoten-eta.

Zer erakusten duzu ikastaro horretan?

Hastapen mailako ikastaroa da. Hortaz, lehenik eta behin kameraren funtzionamendua azaltzen dut: diafragma, abiadu-

“Egunotan Buenos Airesko Arte Bienalerako argazkiak prestatzen nabil”

ra, kanpo-sakonera... Behin teoria azaldu ondoren, kanpora irteera bat egiten dugu. Horren ondoren, argazkiak ASako laborategian errebelatzen ditugu eta, horrekin batera, komentatu eta kritikak egiten ditugu, komentarioetatik gehiago ikasteko asmoz.

Zer daukazu egunotan esku artean?

Bada, une honetan Buenos Airesko Arte Bienalerako argazkiak prestatzen nabil buru-belarri. Donostiako galeria baten bitartez Buenos Airesko Arte Bienaleko antolatzaileek nire lanak ikusi dituzte eta Buenos Airesen erakutsi gura dituzte. Azken baten, pozgarria da han parte hartzeko aukera izatea.



## Arrasateko 'Putz' aldizkariak 20 zenbaki bete ditu

I.B.

Apokalifin Kultur Elkarteak kaleratzen duen *Putz* aldizkariak 20 zenbaki bete berri ditu. Betiko moduan, elkarrizketa mardul baten oinarritu dute aldizkaria, baina badaude beste hainbat atal interesgarri.

Apokalifin Kultur Elkarteak lanean gogor jarraitzen duela erakutsi du behin eta berriro. Sortu zenetik hona *Putz* aldizkariak ez dio kalerik egin saltoki, taberna eta bestelako txokoetako bi hila-beteko hitzorduari.

Azala Golkoko gerrari eta petrolioaren negozio ilunari eskaini diote, betiere, euren ukitu pertsonala emanez. Bestalde, zenbaki gehienetan elkarrizketa bat edo bi argitaratu izan dituzte. Oraingoan, ostera, bi pertsonaia ezagun elkarrizketa berean batu dituzte: Pako Aristik eta Mikel Markezek prestatutako *Abiadura handiko urte baten kronika* ikuskizunaren birarekin bat eginez, aldizkarietako bi lagunak mahai baten aurrean jarri dituzte. Literaturaren gainean, politikaz, Euskal Herriaz eta euskaldunetz luze eta inolako lotsa barik berba egin dute bi pertsona horiek *Putz* aldizkarian.

### HAINBAT IDAZLEREN GUTUN BITXIAK

Hogeigarren zenbaki horretako beste zutabe garrantzitsu batzuk dira hamaika idazle Angel Aldrebesi idatzitako gutunak. Honako idazle hauek hartu dute parte: Manex Agirre, Pablo Sastre, Diego Martiartu, Txema Garcia-Viana, Paddy Rekalde, Eneko Barberena, Balen Tramon, J.A.Roca eta Patxi Irurtzunek, besteak beste.

Horrekin batera, Gotzon Hermosilla idazle eta kazetariak idatzitako *Aste Santu Nekaldia* ipuina eta Enrike Letona idazleak prestatutako *Amaitu dira zure minutuak* ipuin erotikoa argitaratu dituzte. Gauza gehiago ere badaude, baina aldizkarian aurkitu beharko dituzue.

### UDAKO ZENBAKI BIKOITZA PRESTATZEN

*Putz* aldizkariako partaideak, 20. zenbakia kaleratu eta Euskal Herriko txokoetan banatu ondoren, 21-22. aldizkaria prestatzen hasi dira. Honako hau udako ale berezia izango da; zenbaki bikoitza, hortaz. Besteak beste, literaturako, musikako eta komikiko lau pertsonaia aukeratu dituzte eta elkarrizketa bana egingo diete. Horrez gain, udarako freskagarriak izango diren beste hainbat lan ere prestatuko dituzte.

## KULTURAPILULAK

### San Juanetako Kartel Lehiaketako lanak maiatzaren 23a aurretik aurkeztu behar dira

Arrasateko Udaleko Kultura Sailak San Juan jaietako Kartel Lehiaketako oinarriak aditzera eman ditu. Arrasaten bizi edo erroldatuta daudenek hartu ahal izango dute parte. Edozein teknika erabili ahal izango da, eta lan guztiak honako leloa izan beharko dute: *2003 San Juan Jaiak Arrasate*.

Lanak maiatzaren 23a baino lehen aurkeztu beharko dira, eta lehiaketa irabazten duenak 750 euroko saria jasoko du. Udalak saria jasotzen duen lanaren jabetza hartuko du, eta Udalak berak lan guztiak erakusketa egiteko aukera izango du.

MUSIKA/ Monterronen Tijuana In Blue, Sorkun eta Anger taldeek joko dute; Zigorrolan, herriko sei musika talde

# Rock jaialdi bi izango dira herrian: bata Zigorrolan eta bestea Monterronen

IKER BARANDIARAN

Aspaldian ez da rock kontzertu askorik egon herrian. Gaurko asteburua, oster, salbuespena izango da. Gaur, egubakoitza, bi kontzertu egongo dira: bata, Zigorrolan, Piru-ren omenez. Herriko sei musika taldeek joko dute; bestea, Monterronen, Euskal Herria aurrera! lelopean.

Gaur, egubakoitza, aspaldiko parte, rock musikari dagokionez egongo da zer ikusi eta zer entzun Arrasaten. 2001ean auto istripuan hil zen Piru gaztea zenari lagunek omenaldia egin gura izan diote. Horretarako, haren auzoko -Musakola- San Isidro jaietan Piru-ren omenezko kontzertua antolatu dute. Kontzertu-omenaldia 11:00etan hasiko da eta sei rock taldeek hartuko dute parte, guztiak Arrasatekoak: Arkada Sozial, Jodete!, Los Cretinos, The Jukebox, Des-Kontrol eta Kañeria 13k. Kontzertua doan izango da, eta, besteak beste, punk, rock-and-roll eta oi! musikaz gozatze-ko aukera egongo da. Omenaldian parte hartuko duten talde gehie-



GOR DISKAK

Iruñeko Tijuana In Blue taldeaz gain, beste asko izango dira asteburuan.

nak ezagunak dira, baina bada-go ezustekorik eman dezakeen talde gazteagorik ere. Adi, hortaz, kontzertuari!

#### ASPALDIKO TALDEA

Musakolakoa ez da gaurko, egu-

bakoitza, Arrasateko kontzertu bakarra izango; izan ere, Euskal Herria aurrera! lelopean kontzertua antolatu dute Monterronen. Eurria eginez gero, Uarkapen egingo dute. Hamar euro balio du sarrerak.

Kontzertua 22:00etan hasiko da eta hiru taldeek joko dute: Arrasateko Anger, Tolosaldeko Sorkun eta Iruñeko Tijuana In Bluek.

Anger oso ezagunak dira herrian eta poliki-poliki Euskal Herrian ere zelanbaiteko izena hartu dute. Metalaren eta rockaren muturrean dauden euren azkeneko kantuek ezagutzera emango dituzte.

Sorkuni dagokionez, Tolosaldeko neska hori oso ezaguna egin zen Kashbad taldearekin abesten eta Fermin Muguruzarekin batera zuzenekoak ematen. Joan den urtean Sorkunek bakarkako lehenengo diskoa (Onna) kaleratu zuen eta haren kantuek oso harrera ona izan dute.

Bitxia da egun Tijuana In Blue eszenatoki gainean irudikatzea. 80ko hamarkadan sortu eta hainbat disko kaleratu eta zeresan ugari eman ondoren, taldea desegin egin zuten. Abeslarietako batek, Eskroto-k, goitizena aldatu eta Gavilan-en izenpean Los Huajalotes taldea sortu zuen. Orain dela gutxi, ezustean, Iruñeko Eguzki Irratiaren 20. urteurrenerako elkartu egin ziren.

## Bihar, zapatua, Arizmendik Ikastolaren Eguna antolatu du

I.B.

Arizmendik antolatutako Ikastolaren Asteari bukaera emateko, bihar, zapatua, Ikastolaren Eguna antolatu du. Urtero moduan, herriko kaleetara aterako dituzte ikastolaren ospakizunak.

Astean Arizmendi Ikastolak ibarren dituen guneeetan hainbat ekitaldi izan ditu. Ekitaldi horiek, batez ere, ikasleei, gurasoei eta ikastolako guneeetako langileei zuzenduta egon dira. Besteak beste, ipuin kontalariak, antzerkia, danborrada, Udaberri Jaia eta herri kirolak izan dituzte. Baita kirolari famatuen eta bidaiari

esanguratsuen berbaldiak ere. Esan beharrik ez dago ekitaldiek parte-hartze handia izan dutela.

#### IKASTOLAKO EGUN HANDIA

Biharkoa, oster, herriari zabal-dutako jai handia izango da. 10:00etatik hasita 13:00ak arte herriko hainbat gunetan ekintzak izango dira. Ferixalekuan Espainiako beste zona batzuetako jakiak dastatu eta musika ezagutzeko aukera egongo da, baita puzgarrietan jolasteko ere. Seber Altuben jolasen ibilbidea jarriko dute. Eta Laubiden eta Herriko Plazan herri kirolak eta Ikasiker leloa duten joko bereziak egongo dira guztien gozamenerako. Ez da aspertzeko aukerarik izango!

## Extremadurarren Kultura Astearen azken txanpa

I.B.

Corazon de Encina elkarteak XIII. Kultura Astea antolatu du. Astearen ekintza mordoia izan dituzte San Andresen duten egoitzan. Gaur, egubakoitza, bihar eta etzi azkeneko ekitaldiak izango dituzte.

Corazon de Encina elkarteak partaideak ez dira erraz nekatzen diren horietakoak. Astearen, egunero, hainbat ekintza izan dituzte, eta aste bukaerarako ekitaldi nagusiak utzi dituzte.

Gaur, egubakoitza, 18:00etan gazteendako lehiaketak eta jokoak egingo dituzte. Horren ostean, Caceresko Gata zonaren gaineko

berbaldia izango dute. Gero saiheski-jana egingo dute eta afa-lostean play-back jaialdia izango dute. Bukatzeko, talde flamenko batek emanaldia egingo du.

Bihar Extremadurako bideoak emango dituzte, ohorezko topa egingo dute eta folklore eta musika jaialdi handia antolatu dute. Jaialdiak arratsalde osoa emango du eta gau partean elkarteak bazkideek azeria izango dute. Eguna bukatzeko, Gau-Alai taldearekin dantzaldia izango dute.

Domekan, Benta Frian, plater tiroketa egingo dute. Horren ostean, elkartearen, mahai-jokoaren finalak jokatu dituzte eta Tarama rumba taldeak kontzertua eskainiko du.

## KULTURAPILULAK

### Arrasate Musikaleko kontzertuak

Arrasate Musikalek bi kontzertu antolatu ditu maiatzaren 22an eta 23an. Hala, 22an, eguenean, klarinete eta flauta emanaldia egingo dute eta egubakoitzean, 23an, pianoa izango da emanaldiko protagonista bakarra.

### Arrasate Musikal, Getxoko Musikaldira

Bihar, zapatua, Euskal Herriko hainbat musika eskola Getxon elkartuko dira aurtengo Musikaldia ospatzeko. Arrasate Musikaleko 100 ikasle joango dira, bi autobusetan. Parte hartuko duten Arrasateko taldeak honako hauek dira: Orkestra Txikia, akordeoi jotzaileak, Banda Txikia, Conboa eta Orkestra Handia.

### Gurasoen Elkarteak jaia antolatu du Bedoñaben

Datorren egubakoitzean, maiatzaren 23an, Herri Eskolako Gurasoen Elkarteak jaia antolatu du Bedoñabe eraikinean, San Andresen. 16:30ean hasi eta 20:00ak artean, ume eta gaztetxoek askaria izango dute, eta horren ondoren euskal karaokera, eskulan lantegiak eta puzgarriak izango dituzte.

### Ramon Pérezek erakusketa jarri dute Arregi galerian

Gaur, egubakoitza, Ramon Pérez margolari bilbotarra- ren erakusketa jarri dute. Erakusketa hori hilabete egongo da Arregi markoztatze dendan. Ramonek sari mordoia jaso ditu. Joan den aspaldian egin dituen lanak figuratibokiak dira eta oso kolore gutxi dute; instant baten ikusteko proposak dira.

**BASATI TABERNA**  
PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK  
TEL. 943 711762

**Gorka** ileapaindegia  
peluqueria  
Orduetgia:  
Astehenetik-ostiralera 09.30-20.00  
Larunbatetan 08.00-14.00  
Ferrerias 35 - 943 77 13 78

**OSORIK PUB**  
Ignazio Zuloaga 4  
ARRASATE

**ZUBIZARRETA LANTEGIAK**  
Gipuzkoa etorbidea 22  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 15 65

E, TXO!

GUREGAIK/ GAZTETXE BERRIA

# Gazte batzarra Uarkapeko gaztetxe berria apaintzen dabil

IKER BARANDIARAN

**Hilabeteetan gaztetxe barik egon ondoren, gazte batzarrak (AGAKO) apirilaren bukaeran eskuratu zituen Uarkapeko gaztetxe giltzak. Orain margotzen dabilta, eta ekainean zabaldu gura dute.**


Arrasateko gazte batzarreko partaideak pozik daude. 2002ko uztailean ospitale zaharreko gaztetxea itxi egin zuten eta orain dela gutxi arte gaztetxe barik egon dira. Apirilaren 30ean, Uarkapeko erabilera askotariko eraikinean egin duten gaztetxe giltzak eskuratu zituzten. Hori baino lehenago, Aste Santuan, kanpoko paretak margotu egin zituzten. Behin giltzak eskuan, barruko aldea apaintzen eta margotzen hasi dira. Soinu ekipoa bera asteon jartzeko asmoa dute. Eta laster tabernako altzariak jarriko dituzte.

## ERAIKIN ETA BANAKETA TXUKUNA

Gaztetxe berriak oso itxura ona dauka. Taberna eta kontzertu aretoa batzen dituen solairua oso ondo dago; kontzertuak eta beste ikuskizun batzuk egiteko oso ondo prestatuta dago, eta gazteek oso ondo hartu dute. Bigarren solairuan hainbat talderendako bost lokal daude.

Gazte batzarrak gogoz hartu du gaztetxea eta gogor dabil lanean. Lokala bera egokitzeaz gain, dagoeneko banatu dituzte gazte batzarreko lantaldeak: Barra taldeak edarien eskariak egingo ditu; Mantenu taldeak konponketen ardura hartu du; Aisialdi taldeak gaztetxetik kanpo egingo dituzten ekintzak antolatuko ditu; Kultura taldeak gaztetxean egingo diren ikuskizunak prestatuko ditu; eta Komunikazio taldeak ekintza guztien berri emango du. Bestalde, taberna boluntarioekin aurrera eramateko asmoa dute.

Gaztetxe barik egon diren bitartean oso ekintza gutxi antolatu dituzten arren, denbora hori barne hausnarketa eta eztabaida egiteko erabili dute. Eta, euren



IKER BARANDIARAN

Gazte bat baino gehiago harrিতuta geratu da gaztetxe berriko aretoa ikusi duenean.

esanetan, hausnarketa prozesua oso aberasgarria izan da.

## EKAINEAN ZABALDU GURA DUTE

Gazte batzarrak autogestioaren aldeko apustua egin du eta bere kargu hartu ditu uraren, argin-

darraren eta telefonoaren gastuak. Gazte batzarraren asmoa da ekainaren hasieran zabaltzea gaztetxea. Horretarako inaugurazio ekitaldi berezia egin gura dute, herritar guztiei deialdia eginez. Behin gaztetxea zabaldu eta gero,

ekintzak egiten hasi gura dute, azken hilabeteotan egon den hutsunea betetze aldera.

Gazte batzarraren esanetan, Arrasateko Udalarekin harreman ona izan du eta etorkizuneko ere horrela izatea gurako luke.

**M**obiliario  
**A**RENAZA

- ALTZARIAK  
- DISEINUA  
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABALETA

**TTUKUN**

- Fotokopiak
- Liburu josteak
- Fotokopiak koloretan
- Planoen kopia
- Offset-a

Ferrerias 23 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 46 62

**HIES**  
**BERRI**

Tel.: 943 79 26 99

**MADINA ZURAK**  
Aroztegia

- Olak
- Aglomeratuak
- Kontratxapatuak
- Tablexa
- Ateak
- Egurrezko leihoak
- Oin-inguruak
- Zangoak
- Aroztegi osagarriak

Zarugalde 38 • Tel.: 943 79 13 78

 **Txitxinpe**

Berezitasunak

Kazuelatxoak

Otarteko hotz eta beroak

Arrasate pasealekua, 33  
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

## BEHEKODENDATIK

## Itsaso Girado

ION LEIHOAK ENPRESAKUE

XABIER URZELAI

Ion Leihoak enpresie oin dala hamar urte sortu euen Itsason gizonak. Krisi sasoie zan, eta fabrikatik urten eta gero enpresa propiue sortzie erabaki euen. **Itsaso gustora dabil lanien, baiñe esaten dau geruago eta gatzague dala klientiekin harremanetan ibilttie. Seguru pazientzia haundixe biher dala.**

**Txikittan ze gure zeuen izen?**

Ez dakit ba... Pelukero-edo.

**Eta oin, lanbide hori hartuko zeuke?**

Ez, ezta pentsau be.

**Ze esango zeuskio Bushei?**

Harei barbarik be ez.

**Eta Aznarrei?**

Harei be ez.

**Drogak legalizauko zeuke?**

Pentsetan dot gauzak legez kanpo eukittiek ez dauela mesederik egitten. Drogie gure dauenak bardin-bardin lortu biher dau; hortan, legalizaute hobeto.

**Eta prostituziñue?**

Bakotxak bere gorputzakin gure dauena egitten dau.

**Pelikula bat? Liburu bat? Musika talde bat?**

Akziñue daukien pelikulak gustetan jat / Norberan burue hobeto ezaguketako balixo dauen liburuek gustetan jat / Euskal musikie entzuten dot.

**Nora juengo zitzake gustora?**

Karibera.

**Uharte batera ze hiru gauza eruengo zeuke?**

Liburue, toallie eta baiñujan-tzixe.

**Etxeko lan gorrotagarrixena?**

Plantxie egittie.

**Juergazalie zara? Juergarako leku bat?**

Bai. Mondraguen bertan juerga politte egin leike.

**Puntuau Mondragueko girue.**

Zortzikue emungo dutzegu.

**Ze dauko ona udaberrixek?**

Dana, lanetik urtendakuen ondiokan egunez dala.

**Zure lanerako ezinbestekue**



X.U.

*“Leihuek ipintterakuen, edozein materixalek emuten dittu emaitza onak”*

**dan gauza bat?**

Psikologia apur bat.

**Tranpan ibilttekotan norbaittekin, zeñekin?**

Sekula be ez jat burutik pasau.

**Denpora librien ze egitten dozu?**

Pasiâu, bizikletan ibilli, telebisiño aurrien lasai asko egon...

**Janari eta edari gustokenak?**

Astien zihur ure edaten dot, baiñe aste bukaeran arda apur bat be edaten dot; eta jateko entsalada on bat onena.

**Ze albiste irakurriko zeuke gustora ARRASATE PRESSen?**

Euskal Herrixen trankil bizi biher garela.

*“Leiho askokin hobeto; argixari inportantzia haundixe emuten dutzet”*

**Ze lan egitten dozu?**

Danetik egitten dogu hamen: egurrekin egitten dogu lan, baitta aluminiuekin be...

**Ze materixal aukeratuko zeuke leihuek jarteko?**

Esan bihera dau edozein materixalek emuten dittuela emaitza onak. Hori norberak dezididuten dau, baiñe askotan aurrekontuan arabera egoten da.

**Etxie leiho askokin, ala garbiketako lan haundiegixe?**

Etxien zenbat eta leiho gehixago euki orduen eta hobeto. Argixari inportantzia haundixe emuten dutzet, eta zenbat eta leiho gehixago euki orduan eta argi haundixague sartuko da etxera.

## NIREBIDAIAHURA/ Iban Iglesias

Mexikora / 2002ko otsailean

Ibani eta Aitorri lan-kontratua amaitu zitzaienean bidaia bat egitea bururatu zitzaien. Ez zeukaten oso argi nora joan, eta azkenean Mexiko aukeratu zuten. Hegazkina hartu eta Cancunera joan ziren: “Lehenengo egunak Karibe aldean egin genituen. Egia esan, egun batzuk egiteko oso ondo dago: harea zuria, ur gardena... Baina gu bidaiatzeko asmoz joan ginen”. Cancundik Playa del Carmenerako bidea hartu zuten, eta egun batzuk lasai asko egin eta gero Txiapas aldera abiatu ziren. Palenquen hainbat egun egin zituzten, baina lo egitera Palenquetik zazpi kilometrora zeuden txabola batzuetara joaten ziren. Gauze txabolan geratzen ziren; ez zen komeni errepede haietan gauze ibiltzea. Palenquen hainbat gauza ikusteko aukera izan zuten, besteak beste, Maien aurriak.

Palenquetik San Cristobal de las Caserako bidea hartu zuten bi lagunek, eta hura izan zen Ibani gehien gustatu zitzaien parajea: “San Cristobal de las Casas ikusteko moduko lekua da. Etxe txikiak, zaharrak, lasaitasuna...” Astebate egin zuten han, baina Ibanek gustura egingo zituen egun gehiago. San Cristobal de las Casasen lagunak egin zituzten, eta haiekin batera inguruak hobeto ezagutu zituzten: “Azken baten, gidari lanak egiten zituzten, eta lan horren truke diru apur bat ematen genien. Hango jendearekin harreman ona izan genuen; batzuetan argi ikusten zen gure diruaren bila etortzen zirela, baina benetako lagunak ere egin genituen han”. San Cristobal de las Casasen egindako lagun batekin Tuxtla Gutierrezera joan ziren, lagun hark senitartekoak zituen-eta Tuxtla Gutierrezen; eta, hala, etxean bezain ondo egon ziren han. Iban eta Aitor gustura zebiltzan, baina egunek aurrera egiten zuten...



*“San Cristobal de las Casas leku ikusgarria da”*

*“Harreman ona izan genuen elkartu ginen mexikarrekin”*

XABIER URZELAI




Sumideroko arroilan ateratako argazkia.

## Herrialde berriak bisitatu dituzu?

Zure bidaia kontatzeko prest zaude?  
Anima zaitetz, zure abenturak gustura irakurriko ditugu eta!

Deitu 943 71 25 11 telefonora.



ZAHARREN ETXETIK



IKER BARANDIARAN

Kutxako ordezkari batek etxeko telelaguntza zerbitzuaren gaineko azalpenak eman zituen Abaroa elkartearen.

## Hirugarren adinekoendako etxeko telelaguntza zerbitzu berria

IKER BARANDIARAN

**K**utxak eta Mapfreak hirugarren adinekoen zuzendutako etxeko telelaguntza zerbitzua jarri dute abian. Etxetik bertatik edozein laguntza behar izanez gero, botoi bat zapaldu eta zerbitzua eskainiko dute.

Kutxak eta Mapfreak Gipuzkoan etxeko telelaguntza zerbitzu berria abiarazi dute. Zerbitzuaren helburua da hirugarren adinekoen laguntza, babesa eta laguntasuna eskaintzea. Horrez gainera, etxean bakarrik daudenek edo dependentsia motaren bat dutenek ere erabili ahal izango dute zerbitzu hori.

Zerbitzu hori erabili ahal izateko jarri duten baldintza bakarra Kutxako bezero izatea da. Horretarako, banketxe horretan kontu-korrente bat zabaltea besterik ez dute eskatzen. Era berean, telelaguntza zerbitzua eskatzen duenak pentsioa edo soldata Kutxan helbideratuta badu,

beherapena izango du.

Telelaguntza zerbitzua 60 urteko gorakoei dago zuzenduta, baina bakarrik dagoen beste norbaitek edo gutxitasun fisiko edo psikikoren bat dutenek ere eska dezakete.

Zerbitzua hitzartzeko orduan, zein zerbitzu mota jaso gura den

azaldu beharko da. Hainbat zerbitzu ematen dituzte: larrialdiren bat izanez gero, telefonogunea aktibatu eta senideei edo ambulantiari dei egingo diote. Bezeroa bakarrik badago eta norbaitek berba egin gura badu, 24 orduetan izango du zeinekin berba egin. Eta badaude beste zer-

bitzu mota batzuk ere: esaterako, bezeroak aldiro sendagaiak hartu behar baditu edo medikuaren txanda ahaztu gura ez badu, etxeko telelaguntza zerbitzutik deituko dute gauza horiek guztiak gogorarazteko.

### EZ DA OSO ZERBITZU GARESTIA

Etxeko telelaguntza zerbitzua Kutxan hitzartu daiteke. Zerbitzua eskatzerakoan, interesatuek premien gaineko orria bete beharko dute. Horrekin batera, sarre-ra moduan 250 euro ordaindu beharko dituzte. Interesatuak pentsioa edo soldata Kutxan helbideratuta badu, kopuru horren erdia ordaindu beharko du: 125 euro, hain zuzen ere.

Horrez gainera, zerbitzu hori hitzartu duen lagunak hilero 15 euro ordaindu beharko ditu. Pentsioa edo soldata Kutxan helbideratu duenak, oster, hilean bost euro ordaindu beharko ditu. Zerbitzu hori astebetean instalatzen dute, eta berorrek izan ditzaketen konponketak Kutxak eta Mapfreak ordainduko dituzte.



### Telefonia eta eskumuturrekoa

Etxeko telelaguntza zerbitzuak bezeroari telefonoaren azpiko aldean jarri beharreko aparatu bat eta eskumuturreko bat eskaintzen dizkio. Edozein premia izanez gero -larrialdiren bat, bakardadea, zerbitzu edo erosketaren bat egin beharra, eta abar-, telefonia edo eskumuturrekoa sakatuta, uneoro behar duen zerbitzua eskainiko diote.

### JAKINGARRIAK

#### Abaroatik Iratxera joango dira txangoan

Maiatzaren 30ean Abaroa elkarteak Iratxera txangoa antolatu du. Hamarretakoa Iratxe hotelean egingo dute. Gero Olighteko gaztelua bisitatu dute, eta horren ostean bazkaria izango dute Iratxe hotelean. Bazkarian dantzaldia izango dute eta opariak banatuko dituzte.

Interesatuek martitzena, maiatzaren 20a, baino lehen eman beharko dute izena eta 15 euro ordaindu beharko dituzte. Hiru autobus antolatu dituzte.

#### Bihar, zapatua, afaria egingo dute Kataiden

Bihar, zapatua, Musakolako erretiratuek urteroko afaria egingo dute Kataiden. Afariaren ostean Musakola erretiratuen elkarteko mahai-jokoan sari banaketa egingo dute, eta auzoko emakume eta gizon zaharrenak omenduko dituzte. Bestalde, asteburuan eskulan erakusketa jarriko dute Musakolako elkartearen.

#### Debagoieneko erretiratuak mahai-jokoan

Joan den egubakoitzean, maiatzaren 9an, Debagoieneko erretiratuak Urola Garaiako erretiratuen aurka lehia-tu ziren mahai-jokoetan. Irabazi zutenek eguaztanean, maiatzaren 21ean, Gipuzkoako finalerdiak jokatu dituzte Legazpin. Legazpira honako hauek joango dira: Gabriel Medina billarrean jokatzera; Jose Mari Akizu eta Felix Eguren tutean jokatzera; Sabina Agirre eta Karmen Egaña briskan jokatzera; eta Antolin Marchena xakean jokatzera. Ea finalera heltzen diren eta zortea duten!

**UGARAN**  
jatetxea

Garagartza auzoa  
Tel: 943 79 76 58  
ARRASATE

**Pando**  
Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6  
(Legarre Pabiloia)  
Tel.-Fax: 943 79 79 70

- Argidun kartelak
- Ibilgailuak
- Stand-ak
- Itsasgarriak
- Biniloa
- Señalizazioak
- Lonak
- Erliebendun hizkiak

**ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA**

- Diagnostika-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 ARRASATE



ARRASATE  
**Julen Lozano**  
Maiatzaren 10ean, 8 urte.  
Zorionak, osaba-izeben eta aitona-amonen partetik.



ARRASATE  
**Vanessa Gabarri**  
Maiatzaren 4an, 23 urte.  
Zorionak! Ana, Sandor eta Mirenen partetik.



ARRASATE  
**Ainhoa Delgado**  
Maiatzaren 13an, 8 urte.  
Zorionak! Etxekoen partetik.




ARRASATE  
**Ainhoa Aranzabal**  
Maiatzaren 8an, 24 urte.  
Zorionak! Etxekoen partetik.



ARRASATE  
**Julen Aranzabal**  
Maiatzaren 27an, 15 urte.  
Zorionak! Etxekoen partetik.



ARRASATE  
**Ander Gómez**  
Maiatzaren 17an, 3 urte.  
Zorionak! Familiaren eta Oihanen partetik.



ARRASATE  
**Xabier Murillo**  
Maiatzaren 17an, 5 urte.  
Zorionak! Egoitzen, amaren eta aitaren partetik.



ARRASATE  
**Rosalía Ruiz**  
Maiatzaren 15ean, 90 urte.  
Zorionak! Familiakoen partetik.



ARRASATE  
**Iban Caballero**  
Maiatzaren 17an, 16 urte.  
Zorionak! Aita, ama, Alberto, Oskar, Pili eta Sonia.



ARRASATE  
**Julen Barandiaran**  
Maiatzaren 12an, 7 urte.  
Zorionak! Aita, ama eta Imanol.



ARRASATE  
**Ainhize Artetxe**  
Maiatzaren 13an, 5 urte.  
Zorionak! Aitatxo, amatxo eta ahizpa.



ARRASATE  
**Marixe Ruiz de Austri**  
Maiatzaren 17an, 4 urte.  
Zorionak! Etxekoen partetik.



ARRASATE  
**Dorleta Cabra**  
Maiatzaren 16an, 15 urte.  
Zorionak! Familiakoen partetik.



ARRASATE  
**Pauli Palacios**  
Maiatzaren 17an, urtebetetzea. Zorionak! Familiakoen partetik.



ARRASATE  
**Aritz Elorza**  
Maiatzaren 18an, 19 urte.  
Zorionak, Pitz! "Estás como Patxi".



ARRASATE  
**Maite Gartzia**  
Maiatzaren 13an, urtebetetzea. Zorionak! Lagunen partetik.



ARRASATE  
**Yune Eguren**  
Maiatzaren 15ean, urtebetetzea. Zorionak! Lagunen partetik.



ARRASATE  
**Saioa Ojanguren**  
Maiatzaren 22an, urtebetetzea. Zorionak! Lagunen partetik.



ARRASATE  
**Aitor Azkarate**  
Maiatzaren 18an, 10 urte.  
Zorionak! Aita, ama eta Josu.



ARRASATE  
**Aitziber Kortabarria**  
Maiatzaren 13an, urtebetetzea. Zorionak! Etxekoen partetik.



ARRASATE  
**Aitor Orue**  
Maiatzaren 18an, 25 urte.  
Zorionak! Aneren partetik.



ARAMAIO  
**Unai Ezpeleta**  
Maiatzaren 15ean, 9 urte.  
Zorionak! Familiaren partetik.



ARAMAIO  
**Idurre Ezpeleta**  
Maiatzaren 23an, 4 urte.  
Zorionak! Familiaren partetik.



ARRASATE  
**Joseba Urzelai**  
Maiatzaren 20an, 4 urte.  
Zorionak! Etxekoen partetik.



ARRASATE  
**Gorka Madinabeitia**  
Maiatzaren 12an, urtebetetzea. Zorionak! Gurasoak, Carlos eta Bitori eta anaia.



ARAMAIO  
**Maria Luisa Etxebarria**  
Maiatzaren 6an, urtebetetzea. Zorionak! Familiakoen partetik.



ARRASATE  
**Marije Vallejo**  
Maiatzaren 7an, 28 urte.  
Zorionak! Lankideen partetik.



ARRASATE  
**Mainer Uribetxebarria**  
Maiatzaren 12an, 4 urte.  
Zorionak! Etxekoen partetik.



ARRASATE  
**Jokin Eriz**  
Maiatzaren 17an, 12 urte.  
Zorionak! Familiakoen partetik.



ARRASATE  
**Jon Mondragón**  
Maiatzaren 21ean, urtebetetzea. Urte askotarako! Etxekoak.



ARRASATE  
**Markel Zabala**  
Maiatzaren 22an, 26 urte.  
Urte askotarako, Martxi! TMT.



ARRASATE  
**Amalur López**  
Maiatzaren 16an, urtebetetzea. Urte askotarako! Etxekoak.



ARRASATE  
**Txema Vela**  
Maiatzaren 19an, urtebetetzea. Urte askotarako! Susi, Ametz eta Unai.



ARRASATE  
**Jon Zuazubiskar**  
Maiatzaren 20an, 4 urte.  
Zorionak! Etxekoen eta familia osoaren partetik.



ARRASATE  
**Karmen**  
Maiatzaren 17an, urtebetetzea. Zorionak! Errastikua jatetxekoen partetik.

# Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak  
ARRASATE PRESSen bidez! Ekar ezazu bere argazkia\*  
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

\*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm.  
Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu.  
Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra ARRASATE PRESSen agertu ondoren.  
Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.

# Adi!

Argazkiak emateko lekua:

**Arrasate:**  
ARRASATE PRESS  
Otalora Lizentziaduna 31.

EZETZASMATU



ARRASATE PRESS

Zein urtetan estreinatu genuen Arrasaten autobus urbanoa?  
Arrastoa: urte *biribila* izan zen.



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSek asmatzaileon artean!



ERANTZUNA .....

IZEN-DEITURAK .....

TELEFONOA .....

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**  
ARRASATE PRESSERA!

Hamar arraultza L63/73 g.

**0,82€** 136 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

**AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA**

M<sup>a</sup> CARMEN ARANArendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, M<sup>a</sup> Carmen!  
Galderen erantzun zuzena:  
**Monterronen, jauregiaren ondoan.**

ARRASATEKOHISTORIA

Guerra-Enea izeneko etxearen nondik norakoak

JON ANDER RAMOS / ARRASATEKO UDALA

Joan den astean Juan Carlos Guerraren gainean egin genuen berba. Besteak beste, Donostian jaiotzen arren bizitzako zati handiena Arrasaten eman zuela kontatu genuen, Guerra-Enea izeneko etxe erautsian, hain zuzen ere. Eta horixe bera da oraingo astean landuko dugun gaia, alboko argazkian ikusten duzuen moduan oso eraikin berezia zen-eta.

Esandako moduan, dagoeneko ez da existitzen etxe hura; izan ere, 1973ko abuztuan bota zuten.

San Frantzisko plazan zegoen. 1766an eraiki zuten, Mugaibe izeneko dorrearen zimenduetan, Ferrerías kalean. 1884an eta 1888an berritu egin zuten. Eta 1920an eman zioten azkenean izan zuen gerra izaerako itxura. Erdi Aroko eraikinen itxura zuen, haren gezi-leihoekin, almena itxurako tontorrekina... Horrez gainera, etxearen aurreko aldean, besteak beste, *Domina e Ayudame* leloa zegoen idatzita.


Eraikinaren barruko aldera begiratuz gero, Guerra-Enea

*Guerra-Enea etxearen gela garrantzitsuena liburutegia zen; gordeta dago*

*24 etxebizitzako eraikina eraiki zuten Guerra-Enea jauregia zegoen lekuan*

etxe-jauregiaren gela garrantzitsuena liburutegia zen. Etxea botatzen hasi zirenean, liburutegi hura Eskola Politeknikora eramanean zuten, eta geroago, Euskaltzaindira. Gaur egun hantxe dago oraindik ere.

Arrasateko Udaleko dokumentuetan agerienez, Guerra-Enea izeneko etxea Jose Arroita jauregi markinarren erosi zion Juan Carlos Guerra-



"MONDRAGÓN Y SUS CALLES" LIBURUA

1766an eraiki zuten Guerra-Enea eta 1973an bota, etxebizitza berriak eraikitzeko.

ri. Arroita jauregiaren asmoan etxebizitzak eraikitzea zen. Eta hala egin zuten. Esandako moduan, 1973an Guerra-Enea etxea bota egin zuten eta 1976an, eraikitako etxe berrira bizi izatera sartzeko baimena

eskatu zuten. Hain justu ere, 24 etxebizitzako eraikina egin zuten Guerra-Enea zegoen lekuan.

Bitxikeria moduan, sasoi hartan Mesedeetako Ama Ikastetxean ikasten zebilen

herriar batek honako hau kontatu digu: Guerra Enea botatzen hasi zirenean, Elices izeneko fraide batek ikasleak tente ipinarazi zituen, horrelako etxe bat botatzearen protesta moduan.

# Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2003ko maiatzaren 16a / 64. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolara Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

## Aramaioko euskara aztertu dute liburu baten

UBANE MADERA

Udaleko ordezkariak lagunduta aurkeztu zuten zapatuan Txipi Ormaetxeak eta Patxi Uribarrenek *Aramaioko euskara* izeneko liburu. 600 ale plazaratuko dituzte.

Foru Aldundiak lagunduta, Udalak Aramaioko euskararen gaineko liburu argitaratu du: *Aramaioko euskara*. Aurkezpenean Patxi Uribarrenek euskaltzaina eta Txipi Ormaetxea (liburuaren egilea) egon ziren Udaleko ordezkariekin batera. Hala, Txipi Ormaetxeak esan zuen hasieran uste zuen baino lan sakonagoa egin duela: "Hasierako helburua Aramaioko hizkeraren oinarriak 100-125 orrialdetan ematea zen, baina azkenean luzeago eta sakonago egitea erabaki dut". Haren esanetan, kontua da horrelako argitalpenak ez direla urtero egiten, eta zenbait urtean egindako lana ez zuela argitaratu barik utzi gura. Edozelan ere, gaineratu zuen aditza eta lexikoa osatu beharrean utzi



Zapatuan egin zuten aurkezpena, kultura etxean.

ROSA MONDRAGÓN

dituela, aurrerago egiteko.

65-70 urtetik gorako hiztunak elkarrizketatu ditu libururako. Besteak beste, bertako hizkeraren lagintxo bat ere jaso du liburu-


ruan. Guztira 600 ale daude Aramaiorako. Txirritolako bazkideei banatu egingo diete liburu; gainerakoen artean, liburu gura duenak udaletxean eska dezake.



## Hamalau taldearen aldeko ekimena

Hamalau taldearen legez kanporatzeagatik protesta egin zuten joan den barikuan 70 bat lagunek. Plazan batu ziren 20:00etatik 20:30era, eta antolatzaileek adierazi zuten, herriko tabernek bat egin zuten protestarekin eta ateak itxi zituzten tarte horretan. Hamalau aurrera doala eta Euskal Herriak aukeratutako errespetatzea; mezu hori zabaldu gura izan zuten.

## Bertsolari Txapelketako bigarren finalaurrekoa



MIKEL ARANBURU

Legutianoko saioaren argazkia; tartean, Andere Arriolabengoa eta Iker Agirre.

Joan den zapatuan jokatu zuten Arabako Bertsolari Txapelketako lehenengo finalaurrekoa. Legutianoko kultura etxean izan zen ekitaldia, 100 ikusle ingururen

aurrean. Sei bertsolariren arteko norgehiagoka izan zen, Lierni Altunaren agindupean. Tartean, Iker Agirre eta Andere Arriolabengoa aramaiorarrak zeuden.

Bosgarren eta seigarren lekuan geratu ziren Aramaioko bertsolari biak. Hori bai, GOITBri esandakoaren arabera, egindako lanarekin gustura geratu ziren biak.

Irabazi Asier Otamendi gasteiztarrak irabazi zuen. Horrenbestez, dagoeneko lortu du ekainaren lehen jokatu den finalerako txartela.

### MANEX FAVORITO

Eta bihar, zapatua, jokatu dute bigarren finalaurrekoa. Amurrioren izango da, 18:30ean. Bihar txapelketan Manex Agirre lehiatuko da, beste bost bertsolariren kontra, Irati Lotinaren gidaritzapean. Horrelakoetan ohi den moduan, puntu gehien lortzen dutenak sailkatuko dira Gasteizko finalerako. Edozelan ere, Ikerren eta Andereren esanetan, Manex da faborito nagusia.

## LABUR

### Bañera Kirol Elkarteak aurtengo bazkide kanpaina abiarazi du

Bañera Kirol Elkarteak bazkideek maiatzaren 31ra arte dute 2002-2003ko denboraldiko bazkide kuota ordaintzeko. Hala jakinarazi digu kirol elkarte horrek. Hamabi euro ordaindu beharko dira, iaz bezala. Ordainketa Vital Kutxan edo Euskadiko Kutxan egin daiteke. Horrez gainera, jakinarazi dute aurtengo ez dutela batzar orokorra egiteko asmorik, baina norbaitek eskatuko balu egingo luketela. Era berean, adierazi dute aurtengo denboraldian kirolari gehiago eta antolaketa lanerako lagun gehiago izan dituela Bañera Kirol Elkarteak; edozelan ere, horrekin batera nabarmendu dute parte hartu gura duenak ateak zabalik dituela. Bukatzeko, urteko gastuen berri eman dute: 2.815 euro, hain zuzen ere.

### Areto futbol, zinema eta trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga

Areto futbolari begiratu gero, joan den asteburuan Bañerako talde biek galdu egin zuten: kadeteek 8-4 La Milagrosaren kontra eta gazteek 0-4 Cafeteria Atenearen kontra. Bihar, zapatua, Laudioiko Ikastolan jokatu dute kadeteek, 10:30ean, eta gazteek Izarra Gorri taldea izango dute aurrez aurre, 11:00etan, Izarra-Gorri Ikastolan. Zinemari dagokionez, *Las Supernenas* filma emango dute.

Bestalde, Udaletik jakinarazi digute trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga ordaintzeko borondatezko epea maiatzaren 19tik ekainaren 19ra artekoa dela.



M25 / ARAMAIOKO ETORKIZUNA AZTERGAI

Aldaketak M25 eta gero Litekeena da EAJ-EA koalizioa erabat nagusitzea



EAJ-EA

**Mertxe Mondragon**

ARAMAIO / 54 URTE / ETXEKOANDREA

Legegintzaldi honen bukaera aldean zinegotzi kargua hartu zuen, eta lehenago ere izana da zinegotzi Aramaion. Bera da alkatetzarako aurkezten den emakumezko bakarra.

**Zein premia ikusten duzue Aramaion? Zein asmo dituzue?**

Lehenik eta behin ikusi behar da EAJk Aramaion zein lan egin duen. Hortaz, nire lana horren jarraipena izango da. Adibidez, auzoetako gasifikazioa eta saneamendua oso garrantzitsua da; hor egiteko falta dena bukatu dugu. Era berean, oso inportantea da Aramaio bizitza edukitzea, jendeak hori sentitzea. Ez dakigu zelan egingo dugun, baina hori izango da gure erronka garrantzitsuetako bat. Proiektu gehiago ere bada: udaletxe berri...

**Legez kanporatzea dela eta, zer iruditzen zaizu sortutako egoera?**

Oso txarto. Egunez egunera aldatuta piloa daude eta ez dira onerako. Aramaion, adibidez, hAMAlau plataforma ilegala da, esaten dute ETAKoak direla, eta nik ez dut ikusi oraindik hori probatu dutenik edo delituen bat egin dutenik. Ez nago ados. Aramaion emaitzak aldaraziko ditu; izan ere, orain arteko botazioetan eurek eta guk lortu dugu ordezkaritza. Hortaz, litekeena da ardura guztia gure esku geratzea, eta hori ez da ona.

**Irabaziz gero, Aramaio lehenengo emakumezko alkatea izango zinateke; pozgarria da, ezta?**

Bai, oso interesantea da. Ni neu oso pozik nengoke lehenengo andrea banintza. Dena dela, uste dut emakumeok lan handia dugula egiteko oraindik ere. Edozelan ere, esan beharra dago horrekin batera, emakumeek euren gainean an ardura piloa dutela, hortaz, apur bat urrun ikusten dute emakumeek euren burua horrelako lanetan, batez ere, orain gutxira arte gizonezkoen lana zela uste zelako. Baina, pentsatzen dut andreak sartuko direla eta sartu behar gara, gainera!

*“Aramaiok bizitza edukitzea izango da gure erronketako bat”*



PP

**Enrique Aguirrezabal**

GASTEIZ / 42 URTE / DIPUTATUA

Arabako Foru Aldundiko Ongizateko diputatua da PPK aurkeztu duen alkategaia. Alderdi Popularrak sekula ez du ordezkaritza izan Aramaion; hain zuzen ere, hori da euren helburu nagusia.

**Zein helburu ditu Alderdi Popularrak Aramaiorako?**

Apustu serioa egin dugu Aramaio Udaletxean aurreneko aldiz ordezkaritza lortzeko. Araban dauden 9 alkatek herrietan, gobernuan zein Diputazioan egindako kudeaketaren babespean aurkeztuko gara.

**Zein proposamen dituzue Aramaio lehenengo emakumezko alkatearen beharrei aurre egiteko?**

1: Aramaio inguruko gazteak erakartzeko gune bilakatu gura dugu; horretarako gazteendako ekimenak bultzatuko ditugu eta babes ofizialeko etxebizitzak egingo ditugu.

2: Aramaio turismoa indartu gura dugu, dauden azpiegitura turistikoak bultzatu eta plan berriak egin. Uste dugu Aramaio bisitariak erakartzeko aukera handiak dituela.

3: Pertsona nagusiekiko arreta indartuko dugu, etxer etxeko zerbitzua hobetu eta egoitzetan nagusien arretarako eta eguneko zentroak bultzatuko ditugu.


4: Enpresen benetako beharretan oinarrituta, emakumeendako heziketa eta trebakuntza ikastaroak ezartzeko asmoa dugu.

**Zein da herriko plataformen legez kanporatzearen gainean egingo duzun balorazioa?**

Alderdi Popularretik uste dugu oraingo hauteskundeetan demokrazia berrindartu egingo dela; izan ere, demokrazia ezarri zenetik, lehenengo aldia da ETA talde terroristaren indarkeria baztertzen ez duen alderdi politikorik aurkezten ez dela.

Demokraziak herritarrek bizitzeko duten eskubidea babestu behar du; baita herritarren osotasun fisikoa ere. Hori guztiori Zuzenbidezko Estatuaren oinarri moduan.

*“Apustu serioa egin dugu Aramaion ordezkaritza lortzeko”*



HAMALAU

**Jon Uribarren**

ARAMAIO / 33 URTE / FRESATZAILEA

Jon Uribarren aurkeztu du hAMAlau zerrenda buru. Eta, ilegalizazioaren eraginez erakundeetan parte hartzeko aukera kenduz gero, herriaren alde lanean segituko dutela esan digu, besteak beste.

**Zer diozu legez kanporatzeaz?**

Herriaren zati bat berba eta aukera barik uztea izugarriko astakeria da, inolako arrazoi juridikorik gabea. Espainiarrek ez dute Euskal Herririk nahi eta horren alde lanean gabiltzanok joko zelaitik kanpo uztea da bide bakarra eurentzat. Hala ere betidanik jakin dugu lana egiten eta oraingoan ere egingo dugu: erakundeetan nahiz erakundeetatik kanpo eta horretarako badugu hamalau arrazoi.

**Edozelan ere, hauteskundeetan parte hartuko duzuela iragarri duzue, zergatik? Eta zelan?**


Herriak hori erabaki du, hala adierazi du sinaduren bidez ere. Herritar asko eta asko eskubiderik gabe gelditzen ari gara eta erantzun beharra dugu. Espainiak ezkerretakoak eta abertzaleak desagerrarazi nahi gaitu eta ezin dugu onartu. Gure boza, aldaketaren boza da, inposaketaren aurkakoa, desobediencia. Autodeterminazioa aktibatu beharra dugu, hortik etorriko baita herri honen konponbidea.

Maiatzaren 25ean hAMAlauren botoak egongo dira. Aurrez banatuko ditugu. Saiatuko gara inor gera ez dadin boto barik. Zailtasunak izango ditugu baina aurrera egingo dugu. Gure botoa inoiz baino baliagarriagoa eta aktibagoa izango da, batez ere egoera larri honetan. Aznarri min handien egiten diona hau da: gure botoz betetzea kuxkak.

**Hauteskundeetan ostean zer?**

Botoen arabera dagozkigun zinegotzi karguak hartzen saiatuko gara. Udalean egongo gara ekainaren 14an. Dagozkiguna eskatuko dugu, errespetatzea. Esperatu dugu alderdiek ere errespetatzea. Edozelan ere, herriaren eta herriaren alde lanean jarraituko dugu.

*“Saiatuko gara inor gera ez dadin gure boto barik”*



PSE-EE

**Mario Onaindia**

LEKEITIO / 55 URTE / IDAZLEA

Politikagintzan aspaldiko ezaguna da Mario Onaindia. Euskal sozialismoan ibili izan da betidanik, Euskadiko Ezkerran lehenengo eta PSE-EEen gero. Senadore izan da bi legegintzalditan.

**Zeintzuk dira PSE-EEen helburuak Aramaiorako?**

Lehenik eta behin askatasuna lortu nahi dugu. Denok dakigu udal hauteskundeak oso garrantzitsuak direla, azpiegiturak, parkeak, zolatze lanak... horrelakoak Udaletxetik bideratzen dira-eta. Baina, horrez gainera, uste dugu Udaletxea edo herria askatasun leku bat ere izan behar dela. Falta hori nabaritzen dugu. Gu mehatxupean gaudu, egin nahi ditugun gauzak egiteko (umeak eskolara eramane, liburu dendara joan...) bizkartzainekin ibili behar gara. Uste dugu askatasun hori falta dela. Eta hori ez dela bakarrik Ertzaintzaren edo Guardia Zibilaen lana, herritarrena ere badela. Hauteskunde hauetako gure ikurrina askatasuna lortzea da.

**Legez kanporatzearen prozesuaren gainean zein iritzia duzu?**

Beste legez kanporatze bat ere egon da: sozialistena eta PPko jendearena. Azken lau urteotan lau zinegotzi hil dituzte eta jende asko klandestinitatean bizi da. Horren aurrean euskal gobernuak ez du ezertxo egin. Jende hori dago mehatxatuta eskema demokratikoa defendatzen duelako eta euskal gobernuak eta alkate askok ez dute hori defendatzen; defendatzen dutenak ETAREN biktima bihurtu dira, eta Ajuria Eneko Ituna apurtu zenetik Madrilgo Entzutegi Nazionaleko eta Epaitegi Konstituzionaleko epaileek askatasuna zaintzeko beste pribilegio batzuk moztu behar izan dituzte. Batzuk modu normalean eta legalean bizitzeko ezinbestekoa izan da legez kanporatzea.

**Zuen asmoak Aramaiorako?**

Adibidez, Eguzkierrapeko urak direla, Errotaberriko kanalizazioa, Matxaingo bidea konpondu, Arexolako plaza urbanizatu, gora doan bidea zabaldu...

*“Uste dugu une honetan garrantzitsuena askatasuna lortzea dela”*

## ERRETRATU ZAHARRA

Zigorrolako  
San Isidro  
jaietakoak

**Z**igorrolako jaiak izanda, hara joan gura izan dugu argazki zaharraren tarte honetan. Eta Zigorrolako lagun talde bati esker lortu dugu oraingo asteko erretratu zaharra.

Gure berriemaileek ez dakite seguru zein urtetakoa den, baina 50eko hamarkadakoa dela uste dute.

Iturripeko futbol zelaian dago aterata; futbol taldea, berriz, Zigorrolako jendeak osatutakoa zen. Itxura denez, besteak beste auzoko jaietan, San Isidrotan, futbol partidua jokatzen zuten; seguru aski Mondragoeko beste talderen baten kontra.

Futbol taldearen atzeko aldean Industrias ABC (Arzamendi Berezibar Compañía) ikusten da; dagoeneko ez da existitzen lantegi hori.

Honako hauek agertzen dira argazkian, goian, ezkerretik hasita: Nicasio Garai, Joseba Arregi, Mariano Barrena, Luis Egidazu, Simon Gruzeta, Luis Arregi eta Jesus Vitoria.

Eta behean, ezkerretik eskumara: Gualberto Gorosabel, Luis Zeziaga,



Gregorio Sagasta, Santiago Narbaiza eta Alberto Madinabeitia.

Bestalde, San Isidro jaien gainean esan beharra dago jaiak jatorri bitxia dutela: 1923ko maiatzaren 15ean gertatu zen; egun hartan Eskola Bateratua zabaldu zuten. Pedro Izagurre parrokiako abade laguntzaileak

bedeinkatu zuen eskola hura. Eta Juan Gorosabel garai hartako auzo-alkateak aurrekua dantatu zion eskolako andereño izango zen Elisa Lasari. Horren ostean, ospakizun bazkaria egin zuten auzoko familiaburuekin, herriko alkatearekin eta maisu Aranoekin batera. Guztien artean erabaki

zuten ordutik aurrera San Isidrotan ospatuko zituztela auzoko jaiak.

**Argazkia:** Juan Luis Elizaran

**Informazioa:** Juan Luis Elizaran, On Pablo Barrena, Benito Barandiaran eta Simon Arregi

**Urtea:** 50eko hamarkada

## NOLA ALDATUDIRENGAUZAK

Azoka plazan  
zinema ikus  
zitekeenean

**A**zoka plaza herritarren gune txukuna zen. Eraikin ikusgarria zen, ondo egindakoa, eta azoka izateaz gain zinema proiektzioak ere eskaintzen zituzten han. Mondragoetar askok Seber Altuben zegoen azokako horma artean ikusi zuten lehenengoz film bat. Langile bi ibiltzen ziren lanean: batek filma zaintzen zuen eta besteak kontalari lanak egiten zituen.



≈ 1926

Eraikin hark gauza bat zuen txarra: hain zehazki zehazki eta batek baino gehiagok katarro galantak harrapatu zituen.



2003

Eraiki handi hark hutsune handia utzi zuen, eta Seber Altubeko plaza egin zuten han. Plaza orain dela gutxi berritu dute.

**CE** ERRASTI KRISTALDEGIA

Plastiko eta burdinazko  
hodiak  
beirina eta kristalak  
osagaiak

Olarte kalea, 47 behea Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25

Monte  
taberna

Maalako errabala 2  
Tel.: 943 79 20 56

Amaiur taberna

- Oilasko erreak egiten ditugu, enkarguz, etxera eramateko
- Ogitaratekoak
- Plater konbinatuak
- Platertxoak
- Eguneko menuak

Etxeko berezitasuna: txorizoa infernu erara.

Ignacio Zuloaga 6. Arrasate. Tel.: 943 77 19 28

# Autodeterminazioaren alde bozkatu



HERRIAN  
HERRI  
ANITZA  
HITZA

# Opel Corsa Edition

ekipamendu eta prezio eksklusiboak



Opel. Ideia berriak. Auto hobek.



Maiatzean zure Corsa Edition

aire girotuarekin, CD-irratiarekin eta  
aleaziozko hagunekin, bakarrik

**10.000€\***

\*Corsa Edition: 3 ate / 1.2 / 16 v / 75 ZP. Fabrikatzaileak gomendatutako prezioa. Arratsate eta Bolear Uhartetako ekainaren 30era arte. Hau guztia barne: BEZa, matxulazio zerga, garrasia, promozioko deskontua, Prever Plano gasolinazko autoentzako. Corsa gama: koartsumo metoa (l/100 Km) 4,71k 7,7ra. CO2 isurpena (g/Km) 118tik 185era.

Gainera, zure **Corsa Edition**-ek ondorengo ekipamendua eskaintzen dizu: • lainotako faroak • larruzko bolantea • aurreko aire-zaku bikoitza • aurreko kristal-igogailu elektrikoak • ateen itxitura zentralizatua urrutiko managailuarekin • barruko akaberak kromo-matean • direkzio lagundu elektrikoa • gidariaren eserlekuaren altuera erregulagarria • alboko faldoiak • kanpoko atzerako ispiluak aluminiozko look-arekin • ihes-hodi deportibo kromatua. **Zatoz zure Opel kontzesionariora**

## Giauto Arrasate

Kontzesionario ofiziala:

San Andrés 10 D. Tel. 943 77 30 10. ARRASATE

[www.giauto.es](http://www.giauto.es)